

# XIX

Literatur lehiaketa  
haur eta gazteentzat  
euskaraz

Certamen literario  
infantil y juvenil  
en euskera


# 2008



AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN  
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua  
Servicio municipal de euskera



Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2008ko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatur lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 235 lan aurkeztu ziren eta epai-mahaian pertsona hauek egon ziren:

### **Presidentea**

María Lecumberri Bonilla

### **Alaitz DBH Institutuko irakasleak**

Jokin Muñoz

Maite Gorospe

María Ángeles Arregi

### **Alaitz LH Ikastetxe Publikoko irakasleak**

Iñaki Andueza

José Luis Ladrero

Olaia Erbiti

### **Ika Sahats euskaltegiko irakasleak**

Aitziber Garraida

Arrosa del Burgo

Aszen Argandoña

José Ramón Olano

Josu Asurmendi

Josu Mujika

Oskia Uztarroz

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil y juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2008. En total se presentaron 235 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

---

### **ARGITALPENEA / EDICIÓN**

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

### **DISEINUA / DISEÑO**

HEDA Comunicación

### **INPRIMAKETA / IMPRESIÓN**

Gráficas ONA

### **L.G. / D.L.**

NA-2509/2008

# Presentación

Estas líneas van dirigidas principalmente a todos los autores de los cuentos y bertsos que a continuación quedan reflejados en este libro, y escritos en euskera por niños, niñas y jóvenes de nuestra localidad, y que seguramente váis a poder disfrutar con su lectura.

Quiero daros las gracias en primer lugar a todos los participantes en este certamen literario infantil y juvenil en euskera, ya que sin vuestra participación este certamen no sería posible.

En segundo lugar, quiero felicitar a todos y todas los ganadores de este certamen; aunque ya tuve la ocasión de hacerlo durante la entrega de premios, no podía dejar esta oportunidad para volver a hacerlo, felicitar a los que no pudieron asistir ese día y dejarlo reflejado en estas líneas.

Seguiremos fomentando este certamen literario en euskera, ya que gracias a la buena aceptación que tiene entre niños, niñas y jóvenes de Barañáin que tienen como una de sus lenguas el euskera, el próximo año convocaremos la vigésima edición, y eso creo que es un signo muy importante.

Os animo a que sigáis enriqueciendo este certamen literario en euskera con vuestra participación.

# Aurkezpena


Aurrean dituzuen lerrook liburuxka honetako ipuinen eta bertsoen egileei zuzendu dizkiet nagusiki, euskaraz idatzi duten gure herriko haur eta gazteei, hain zuzen. Lan hauek irakurtzerakoan gozatuko duzelakoan nago.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet haur eta gazteentzako euskarazko literatur lehiaketa honetako parte-hartzaile guztiei, zuen ekarpenik gabe ez bailegoke lehiaketarik.

Bigarrenik, lehiaketan sarituak izan zaretenei zorionak eman nahi dizkizuet, sari banaketan aukera izan nuen arren ez baitu berriz ere egiteko aukera galdu nahi. Beraz, egun hartan egoterik izan ez zenutenentzako ere badoazkizue lerrook gordeko dituzten zorionak.

Euskarazko literatur lehiaketa hau sustatzen jarraituko dugu, beren hizkuntzen artean euskara duten haur eta gazteen artean duen harrera ona ikusita. Hartara, datorren urtean hogeigarren edizioa antolatuko dugu, eta uste dut nabarmentzekoa dela hori.

Nire animoak helarazi nahi dizkizuet, zuen parte-hartzearekin literatur lehiaketa hau aberasten jarrai dezazuen.



Iz. / Fdo.

**MARÍA LECUMBERRI BONILLA**

**HEZKUNTZAKO ETA KIROLERAKO INFORMAZIO BATZORDEBURUA  
EUSKARA ARLOKO ARDURADUNA**

**PRESIDENTA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE EDUCACIÓN Y DEPORTE  
RESPONSABLE DEL ÁREA DE EUSKERA**



## PRINTZESA ETA KANGUROA

Ainhoa Astrain Macicior

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 3° curso


Bazen behin, Australiako zonalde batean, gaztelu handi bat. Han Dalia izeneko printzesa bat bizi zen. Dalia, alai, zintzoa eta argia zen, horregatik printze guztiek maite zuten. Daliak kanguro txiki polit bat zuen, kanguroak maite zituelako. Kanguroa Artur deitzen zen.

Egun batean Dalia Artur paseatzen zegoen, beti bezala. Orduan soinu handi bat entzun zuten eta biak korrika gaztelura joan ziren. Han erregeak gerra hasiko zela esan zuen eta Dalia eta Artur logelara joan ziren. Logelan plan bat asmatu zuten gerra ez izateko. Hau zen plana:

“Aurkakoen gaztelura joango gara eta han kamareroz jantziko naiz. Orduan edariari eta janariari pozo pixka bat botako diot, horrela denak lo geratuko dira”.

Esan eta egin. Baina ez zen hain erraza izan. Gazteluan zaindaria zeuden eta ez zioten pasatzen utzi nahi, baina suertez, makil bat zeukan eta zaindaria lurrera bota zituen. Gazteluan pentatu zuena egin nahi izan zuen, baina kamarero jantzia txikia zuen. Orduantxe ikusi zuten beste bat eta hori oso ongi zuen.

Esan zuena egin zuen Daliak eta bere gaztelura iritsi zenean denek zorionak esaten zioten. Daliak ez zekien zergatik esaten zioten hori baina berehala jakin zuen, bere urtebetetzea zelako!



## INDIARRA ETA MUSIKOA

Nuria Ayala Diez

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 3° curso

Egun batean Peiok indiarra izan nahi zuen, eta herri txiki batean bizi zen bere gurasoekin. Indiarrek asko gustatzen zitzaizkion. Ipuin asko irakurtzen zituen indiarrei buruz.

Orduan indiarrek bezala izan nahi zuen. Lehenengo, indiarren arropa biltzen hasi zen. Baul batean mozorroak aurkitu zituen: lumak... Gero, bere aurpegia indiarrek bezala margotu zuen. Horrela ikastolara joan zen indiarrez jantzita. Ikastola barruan indiar bat bezala eserita zegoen eta hitz egiten ere bai. Adibidez, “Peio jolastu nahi”.

Bere andereñoak esaten zion Peioren amari suspenditu zuela gaizki hitz egiteagatik.

Bere urtebetetzean bere lagunak gonbidatu zituen, baina indiarrez jantzita joan behar zirela esanez. Opari asko eman zizkieten. Opari bat liburu bat zen, musikari buruzkoa.

Gau hartan liburua irakurtzen hasi zen.

Asko gustatu zitzaion. Orduan musika ikasi nahi zuen eta instrumentu asko jotzen ikasi zuen. Tronpeta izan zen gehien gustatu zitzaiona.

Asko, asko ikasi zuen, eta famatua bihurtu zen.



## LEOPARDO ITSUA

Ibai Zudaire Lasa

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 3. maila

**2º PREMIO:** Educación Primaria 3º curso

Egun batean oihanean leopardo batzuk zeuden. Leopardo bat hiltzen ari zen eta manada guztia etorri zen. Leopardo itsua taldearen nagusia zen, eta hil zenean leopardo itsua negarrez hasi zen. Eta hildakoaren gorpua lur azpian sartu zuten.

Urte batzuk pasatu ziren leopardo kume batzuek gorpua aurkitu zuten arte. Gorpu hori leopardo umeez atera zuten lurretik. Hamabi egun pasatu zirenean gorpu hori esnatu zen eta oihaneko guztiak beldurrez geratu ziren. Gau batean, leopardo itsua esnatu zen, eta gorpua ikusi zuen. Hau bere atzetik joan zen, eta leopardo itsua hil zuen. Denak negarrez hasi ziren eta, bat-batean, hosto bat erori zen lurrera. Leopardo batek hostoa hartu zuen eta leopardo itsuaren gainean jarri zuen eta berpiztu zen; honez gain, ikusten hasi zen.

Bitartean, gorpua beste oihan batera joan zen lagunen bila.

Handik aurrera leopardoak lasai geratu ziren eta beti kalera ateratzen ziren.



## MAITAGARRIA ETA AINGERUTXOA

**Uxue Rodríguez Pérez**

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 3. maila

**2° PREMIO:** Educación Primaria 3º curso

Duela urte asko, kobazulo batean bizi ziren maitagarri bat eta aingerutxo bat. Maitagarriak soineko gorri bat zuen eta bere buruan koroa. Aingerutxoak bakarrik soineko zahar bat zuen, eta beti garbitzen eta garbitzen ibiltzen zen.

Egun batean maitagarria joan zen festa batera eta aingerutxoak utzi zuen etxean garbitzen, beti bezala. Maitagarria joan zenean, aingeru-mutil bat agertu zen eta esan zion aingerutxoari:

- Kaixo, aingerutxo, nahi duzu nirekin etorri festa batera?
- Bale! Zuk nahi baduzu ni joatea, ba, primeran pasatuko dugu.

Orduan joan ziren festara. Han, festan, gauzak zeuden erosteko, eta aingeru-mutilak erosi zizkion soineko more koloretsu bat eta koilare bat.

Gero joan ziren etxera eta esan zuen maitagarriak:

- Baina, ze polita zaude! Eta nork erosi dizu?
- Beste aingeru-mutil bat izan da.
- Ba, koilare hori ere oso polita da.

Azkenean, maitagarria eta aingerutxoak oso pozik bizi izan ziren betirako.



## MAGI ETA MAITAGARRIA

**Iraitz González Blanco**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 4º curso

Bazen behin Magi izeneko neska bat, ile marroia eta begi berdeak zituen. Magi oso sentikorra zen, eta ez zitzaion gustatzen bere ondoan zegoen jendea triste ikustea, eta munduan zegoen pobrezia asko kezkatzen zuen.

Egun batean Magik, ohetik altxatu zenean, jende asko kalean ikusi zuen etxebizitzarik gabe. Pena handia eman zionez, negarrez hasi zen eta bat-batean maitagarri bat agertu zen; berarekin hitz egin ondoren Magik esan zion:

- Benetan lagundu nahi didazula pobrezia mundutik kentzen!?
- Bai -erantzun zuen maitagarriak.

- Eta halako batean pobreek etxebizitza zeukaten, baina gauean sorgin maltzurak pobrezia itzuli zuen. Magi konturatu zenean maitagarriari deitu zion eta maitagarriak dena azaldu zion. Berriro maitagarriak pobrezia kendu zuen, eta gauean sorginak berdin egin zuen. Maitagarriak eta Magik sorgina desa-



gertzea nahi zuten. Bere kobazulora iritsi zirenean, sorgina atera eta Magi igel bihurtu zuen, eta maitagarriak bere ahalmenearekin sorgina desagertzea lortu zuen.

Azkenean Magi ez zen gehiago igela izan eta pobrezia mundutik kendu zuten.

### ERLOJU EROTUAK

**Jon Aramendia Martínez**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 4º curso

Bazen behin erloju bihurri bat 4. mailako gelan zegoena. Irakasleek joan behar zutenean ordu bat gehitu egiten zuen eta haurrak kexatzen ziren ez zekitelako zer ordu zen.

Egun batean irakasleak erlojua hartu eta poltsa batean sartu egin zuen beste erloju batzuekin. Irakasleak beste erloju berri bat jarri zuen paretan. Oso polita zen baina honek ere bai bihurrikeriak egiten zituen. Orratzak bueltaka eta bueltaka hasten ziren ezin geldituz. Orduan haur batek esan zuen:

- Begira, begira, erlojua erotuta dago!

Irakasleak begiratzera joan, erlojuak ongi markatzen zuen ordua. Irakasleak haserretuta haurra kanpora bidali zuen. Horrela egin zuen bost haurrekin. Irakasleari ideia bat bururatu zitzaion: ikasle baten tokian jarri zen eta ikaslea irakasle bihurtu zen.

Handik gutxira ikasle batek esan zuen:

- Begira, begira erlojua!

Une horretan irakaslea ohartu zen ikasleak egia esaten ari zirela, eta barkamena eskatu zien. Haserre bizian erlojua zakarrontzira bota zuen. Irakasleak bai punteria ona zeukala, oso ona benetan!

Azkenean kuartzozko erloju digitala ekarri zuten eta geroztik puntu-puntuan sartu eta irten egiten dira.

### KATAGORRIA ETA BERE URTEA

**Iñaki Martínez Azpiroz**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 4º curso

Bazen behin Mikel izeneko katagorri bat. Mikelek zuhaitz batean zuen habia. Oso buruargia zen, bai ba, pentsatzen zuen guztia ez zuen ahazten. Bazituen hiru bizilagun: bat Jon, beste bat Jose eta azkenekoa Itz deitzen zen. Jonek Itzekin lan egiten zuen eta Jose hain lagilea zen gela oso bat betetzen zuela ezkurrez. Baina urte horretan uzta txarra egin zuten.

Urteko udaberrian, Josek esan zion Mikeli:

- Ez zara lan egiten ari, zoaz lanera!

- Lan egiten ari naiz, udaberriko kantak eta koloreak hartzen ari naiz -erantzun zuen Mikelek. Udan, esan zion Itzek Mikeli:



- Zer ari zara? Zoaz lanera.
- Lanean ari naiz. Eguzki izpiak hartzen ari naiz.
- Udazkenean, esan zion Jonek Mikeli:
- Zoaz lanera!
- Lanean ari naiz. Kolore politak hartzen ari naiz. Ikusiko duzu neguan.
- Negua iritsi zenean, gorde egin ziren lauak etxean, baina negua bukatu baino lehen janaria agortu zitzairen. Orduan, Mikel urte osoan alferra bezala egon arren, benetan, oso langile ibili zen eta urtean zehar hartutako gauzak ateratzen hasi zen.
- Lehenik eta behin, eguzki izpiak emango dizkizuet: eguzkia, izpiak, goxo, bero...
- Mikel, oso gustura gaude! -hiruek aho batez.
- Orain ahoa gozatuko duzue: intxaurreak, gereziak, onddoak... goxo-goxoak!
- Mikel! Janariak! Oso goxoak ziren. -Josek.
- Bueno ba, orain kobazuloa ongi gelditzeko koloreak botako ditut: kolore kolore, arroxak, gorria, berdea, horia...
- Ze polita! Ze polita! -Jonek.
- Ba orain, kanta bat:

*Udaberri udaberri,  
kolore kolore,  
polit polit,  
arroxak, gorria eta lila  
Polit polit,  
Hurrengoa nola da*

- Mikel! Zuregatik bizi gara, zuregatik disfrutatu dugu. Eskerrik asko. -ltzek.
- Aurrerantzean, oso pozik egon ziren kobazuloan neguak pasatzen.
- EGIA ALA GEZURRA BI BEGIEN ARTEAN SUDURRA.

## MUNDUA IZUGARRIA DA

### Idoia Garmendia Berango

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila

**2º PREMIO:** Educación Primaria 4º curso



Bazen behin Nekari izeneko neska bat, bere familiarekin bizi zena; aitona ere bizi zen haiekin. Nekari oso ezezkorra zen. Denak beldurra ematen zion, adibidez: beste umeekin jolasteak, kalea gurutzatzeak...

Nekariaren aitona optika batean lan egiten zuen. Nekariaren aitona Juanek ez zekien zer egin Nekari alaitzeko. Egun batean Juani ideia bat bururatu zitzaion, Nekari iri betaurreko batzuk egitea, eta egin zituen. Etxera itzultzean Nekariaren logelara sartu eta esan zion:

- Nekari, betaurreko hauekin den-dena polita ikusiko duzu.
- Bai? Den-dena?
- Bai.

Nekari, betaurrekoak jarri eta kalera atera zen, beste ume batzuekin jolastu zen...

Baina egun batean betaurrekoak apurtu ziren eta Nekari negarrez hasi zen. Aitonak Nekari negarrez ikusi eta galdetu zion:

- Nekari, zer gertatzen da?
- Betaurrekoak apurtu dira, ezin izango dut mundua berriro polita ikusi.
- Betaurrekoak ez dira magikoak, kristalezkoak baizik, mundua polita da zuk polita ikusi nahi baduzu.

Azkenean Nekari beti alai eta zorionsu bizi izan zen.

# ABENTURA ZORAGARRIA

**Daniel Matxiñena Abad**

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila

**2º PREMIO:** Educación Primaria 4º curso

Bazen Flip izeneko inurri bat. Oso abenturazalea zenez, inurritegitik joatea erabaki zuen, bere poltsa txikia bizkarraren gainean zuela. Gauak eta egunak irauin zituen oinez eta azkenean Barañain izeneko hiri batera iritsi zen. Pixkanaka-pixkanaka kaletik zihoan eta halako batean Alaitz ikastetxea ikusi zuen bere aurrean. Sartzea erabaki zuen, baina ikastetxea hain handia zela ikusi zuenean, ia-ia zorabiatu zen. Berarentzat dena oztopoak ziren. Lehenengo, eskailerak igotzeko bere ekipajea ondo jarri zuen. Eskailerak oso altuak ziren eta zailak ziren eskailerak igotzeko. Dena lasaia zegoen, baina bat-batean:

“RINNNNG!!!” Flip beldurtu egin zen, eta esan zuen:

- Sua dago ala zer?
- Ez, lagun! -esan zuen ahots batek.

Flipek buelta eman zuen eta inurri gorri bat ikusi zuen.

- Hau txirrina da eta umeak kasetik atera eta patiora joaten dira atsedean bat egitera –esan zuen inurri gorriak.

- Nola duzu izena? -galdetu zion Flipek.

- Nik Flopo dut izena, eta zuk?

- Bai? Zure izena Flopo da? Ba, nirea Flip da, hau ezustekoa, ia-ia izen berbera.

Biak lasai zeuden hizketan baina bat-batean trumoi hotsa entzun zen. Flipek ekaitza zela pentsatu zuen baina berehala ohartu zen ez zegoela ekaitzik, oin erraldoi batzuk ziren eskaileretan gora joaten zirenak. Flopok esan zuen:

- Korri, goazen hemendik eta sar gaitezen zulo horretan, han salbu egongo gara eta.

Bi inurriak zuloan sartu ziren. Dena oso ilun zegoen eta Flipek ez zituen oinak lurrean sentitzen, zerbait likidoa sentitzen zuen bera eramaten.

- Flip, hodi batean gaude, ez dakit nora eramango gaituen!!

Flipek eta Flopok bide luzea egin zuten hodieta gora eta beheara, baina azkenean berogailu baten zirrikitutik atera ziren. Berogailutik salto egin zuten, eta ikasgela batean aurkitu ziren. Ez zegoen inor; eta handik atera behar zuten, baina nola? Atea erraldoia zen, ez zegoen ezta zulo txiki bat handik ateratzeko. Flip pentsakor gelditu zen eta ideia bat bururatu zitzaion:

- Begira paper hori! Badakit zer egin behar dugun!

Bi inurriek paperezko hegazkin bat egin zuten.

- Hartu hegazkina punta horretatik! -esan zion Flipek.

- Nik beste puntatik hartuko dut -esan zuen Flipek berriro.

Biek halaxe egin zuten, orduan mahaitik salto egin zuten eta leihotik joan ziren, hegazkinaren

gainean. Hegan eta hegan joan ziren, ikastetxe osoa zeharkatu zuten eta azkenean mendi batean lurreratu ziren. Toki hura oso lasaia zen eta hain ondo egon ziren, azkenean biak mendi horretan bizi izan zirela.

### DANI GALDUTA DAGO GALAXIAN

**Natalia Soto Moraleda**

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 4. maila

**2º PREMIO:** Educación Primaria 4º curso

2025. urtean, etxeak metalezkoak zirenean, kotxeak elektrikoak zirenean, airetik joaten zirenean, errobotak bizi zirenean, Dani bizi zen, mutiko bihurri bat.

Egun batean, eskolarekin Uranora joan behar zuen, baina berandu ailegatu zen eta ez zuen hartu kohetea; orduan joan behar izan zuen bere aitonaren nabe zahar-zaharrean. Iritsi zenean ez zegoen ezagutzen zuen inor:

Uranoko jendeak beste modu batez hitz egiten zuen. Ulertzen ez ziotenez, eskola batera joatea erabaki zuen beraien hizkuntza ikasteko. Bi urte pasa zituen eskola horretan, lagun asko egin zituen eta zegoen familiarekin oso ongi bizi zen, baina (alde batetik) itzuli nahi zuen bere aita, ama eta lagunak ikusteko. Egun batean galaxiako planetek lehiaketa bat egin zuten eskolen artean. Finalistak Uranoko eskola eta Lurrako eskola ziren. Galtzen zuenak eman behar zion beste eskolari ikasle bat.

Danik Uranok galtzea nahi zuen, horregatik dena gaizki erantzuten zuen. Uranoko jendea konturatu zen Danik nahita egiten zuela gaizki erantzutearena. Baina ulertzen zuten zergatik egiten zuen. Azkenean Uranok galdu eta Dani Lurrara itzuli zen.

Bere Uranoko familiari eta lagunei idazten zien astero, hori bai, Uranoko hizkuntzan.

Azkenean, ez da inoiz berandu ailegatzen. Baina, berriz gertatzen baldin bada, ez da larrituko lagun gehiago izango dituelako.

Egia ala gezurra begi bien artean sudurra.

### ROS ETA PUNKEN ABENTURAK

**Nerea Beloki Yerro**

**1. SARIA:** Lehen Hezkuntza 5. maila

**1º PREMIO:** Educación Primaria 5º curso

Orain dela urte batzuk, Lazarot herrian, katu bitxi bat bizi zen. Katuak Ros izena zuen, eta esan dudan bezala, oso ospetsua zen, izan ere, bere gertaera honengatik:

Ros zoru batean bizi zen Miren, Saioa eta Aimarrekin. Miren, Saioa eta Aimar bere jabeak ziren eta oso ongi zaintzen zuten. Rosek txikia, laranja eta argala zuen gorputza, eta oso jakintsua zen.

Gau batean, Ros kalera atera zen Aimar, Miren eta Saioarekin paseatzera. Orduan, Rosek gauza borobil, txiki, zuri bat ikusi zuen zeruan, eta bere jabeei zeinuak egiten hasi zitzaien, zer ote zen galdetu nahian. Baina, bere jabeak, berriz, gaizki zegoela pentsatuz, etxera joan ziren. Etxean zeudelarik, Rosi esne beroa eman zioten eta bere ohera eraman zuen Aimarrek. Ros gau osoan ikusi zuen zirkulu zuria zer ote zen pentsatzen egon zen, baina ez zuen lortu zer zen jakitea.

Hurrengo goizean, Ros oso laster jaiki eta kalera joan zen, bere lagun katuari ikusi zuena kon-tatzera:

- Kaixo Ros, zer zabilta hemendikan? -galdetu zion Punk katuak Rosi.

- Etorri naiz atzo, zeruan, borobil zuri bat ikusi nuelako eta ez dakidalako zer den -erantzun zuen Rosek.

- Aaaa, gauean agertzen den gauza zuri hori ilargia da, motel!!!!!! -jarraitu zuen esaten.

- Ba ilargia oso polita da, ahal banu hara joango nintzateke bizitzera. Agur, etxera itzuli behar dut, bihar berriz etorriko naiz ilargiari buruz mintzatzen jarraitzeko. -Rosek bere laguna agurtu eta etxera itzuli zen.

Etxerako bidean, Rosi ilargira joateko garraibide bat asmatzea bururatu zitzaion; horrela, bere laguna eta bera ilargira joan ahal izango ziren.

Etxera iristean, esnea edan zuen, parkera joan zen, jan zuen...

Azkenean, denborarekin batera, beste egun berri bat iritsi zen eta Ros, esan zuen bezala, bere lagunarengana itzuli zen:

- Egunean, Punk, atzo esan nizun bezala, berriz hemen nago -esan zuen Rosek.

- Egunean, baita zuri ere, Ros. Entzun momentu batez arretaz, esan behar dizudana oso harri-garria dela: entzun dut gaur jabetxe bateko telebistan, gizaki batzuk ilargira joan behar direla, hurrengo hilabetean, espaziontzi izeneko tramankulu batean!!!!!! -jarraitu zuen Punkek esaten.

- Ba, oso ongi etorriko zait pentsatu nuenerako. Izan ere, gaur esan behar nizun, ilargira joateko tramankulu bat asmatu behar genuela; baina orain, bakarrik, joan behar diren espaziontzian igoko gara, izan behar den egunean eta kitto -erantzun zuen Rosek.

- Baina zu txoratuta zaude ala? Gainera, esaten dute ilargira joan behar diren horiek, egunean 7 orduz entrenatzen egon behar dutela ilargian egoteko, forma onean egon behar dutelako -esan zion Rosi.

- Ez da hainbesterako, Punk, espiatuko ditugu eta, beraiek egiten dutena, guk egingo dugu; beste aldetik, eraman behar dugun jantziei buruz ez axola, esango diogu zure amonari, horretan oso ona da eta -proposatu zuen Rosek.

- Beno, ilargira joateko hainbeste gogo badituzu, egingo dugu, baina ez pentsa nire amona da-goela jantziak egiteko -hori esan, eta jarraian hasi ziren lanean.

Lehenengo, Ros eta Punk, ilargira joan behar ziren horiek entrenatzen zuten tokia bilatzen hasi ziren; ez zuten arazo handia izan horretarako, Punkek telebistan entzun zuelako zein kaletan zegoen. Gero, kontu handiarekin hara sartu ziren eta izkin batean gizakiek egiten zutena egiten jarri ziren. Hori nahiko zaila zen, dakigun bezala, katuek ez dutelako gizakiak bezalako gorputza. Entrenamentua bukatu zenean, biak beraien etxeetara joan ziren.

Ros etxera iritsi zenean, ez zeuden bere jabeak; izan ere, astelehena zen eta bere jabeek lanean jarraitzen zuten. Orduan, Rosek lo egin zuen hurrengo eguna arte. Hurrengo egunean, berriz entrenamentura joan zen eta horrela hogeitasei egunez.

Bi egun falta ziren ilargira joateko eta Ros eta Punk oso urduri zeuden:

- Azkenean, ilargira joango gara, ez duzu imajinatzen ditudan gogoak!!!!!!!!!!!!!! -esan zuen Rosek.

- Orain, pentsatzen jarri naizenean, konturatu naiz ez daukagula jantzirik!!!!!!!!!! -jarraitu zuen Punkek esaten:

- Berdin dio, ez urduritu, jantzirik gabe joango gara.- Hori esanda, etxera joan ziren.

Orduan bakarrik 24 ordu gelditzen ziren egun garrantzitsuenerako eta gure bi katuak oso urduri zeuden. Egundua oso luzea egin zitzaion, baina azkenean iritsi zen denek espero zuten eguna.

Ros eta Punk, bere egunean esan zuten bezala, espaziontzira joan eta hara sartu ziren, inor ikusi gabe; bi katuak liluraturik gelditu ziren espaziontzia ikustean. Hainbesterako izan zen, zein bi katuak ezin zirela mugitu erreakzioaz; gainera, egoera areagotzeko, ilargira joan behar zirenak sartu ziren espaziontzian, eta bi katuak ikusi zituzten. Orduan, gizaki horiek, Punk eta Ros hartu eta kanpora bota zituzten. Jarraian, kamara guztiek grabatu egin zuten, katu baten azerpena espaziontzi ondoan.

Handik aurrera, Ros oso katu ospetsua izan zen; berriz, Punk, kamarak ikusi baino lehen joan zen, eta lehen zen katu soila izaten jarraitu zuen.  
Egia ala gezurra, begien artean sudurra.

### LAPUR BAT ESKOLAN

**Amaia García Remón**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 5. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 5° curso

Neguko egun hotz batean, eskolan ikasten ari ginela, andereño Sagrariori telefonoz deitu eta klasetik atera zen. Nire klaseko kideak eta ni bakarrik geratu ginen.

Bat-batean, atean jo zuten baino ez zen inor sartu. Guk, hori ikustean, atea ireki genuen baina bakarrik itzal berdugarri bat ikusi genuen. Xabierrek esan zuen:

- Amaia, Iranzu, Uxue! goazen itzalaren atzetik!!

Horrelaxe egin genuen baina ez genuen ezer aurkitu. Bat-batean, zarata harrigarri batzuk entzun ziren eskola osoan. Sabaira begiratu eta urrats batzuk ikusi genituen. Horrek esan nahi zuen itzala hurbil zegoela. Ondoko klasea begiratu eta atea zabalik zegoen. Klase horretara sartu eta arbelean armarri bat zegoen eta ondoan mezu hau:

- Kontuz gurekin, oso arriskutsuak gara!!!

Iranzuz hauxe esan zuen:

- Nik armarri hau nonbaiten ikusi dut.

Denak pentsatzen jarri ginen eta eskola osotik begiratu genuen. Azkenik atezaintzara heldu ginen eta fotokopiagailuaren atzean armarria ikusi genuen. Armarriaren ondoan botoi bat zegoen, botoiari eman eta pasabide sekretu bat agertu zen. Hortik pasatu eta itzala berriro ikusi genuen. Itzala lapur bat zen!!!! Bere atzetik joan ginen eta kaiola batean gure ikaskideak eta Sagrario giltzapeturik ikusi genituen. Kaiola irekitzeko giltza lurrean zegoen baina apurtuta. Uxuek esan zuen:

- Nik orkila bat dut. Kaiola irekitzeko erabiliko dugu!!!

Orkilarekin kaiola ireki genuen eta denok lñakiri, hau da, eskolako zuzendariari, lapur bat zegoela esan genion. Orduan, lñakik, lapurra azkenengo aldis non ikusi genuen galdetu zigun eta guk pasabide sekretura eraman genuen eta hor zegoen lapurra. lñakik bi haur berarekin joateko esan zuen, hain zuzen ere Amaia eta Uxue; beste guztiak poliziari deitzera joan ziren. Lapurrak zaku bat zeukan besapean. Gu pasabidearen atean geratu ginen lapurra ez ateratzeko. Bost minutu pasatu eta gero, polizia etorri zen eta lapurra non zegoen esan genion. Polizia isil-isilik lapurraren bila joan zen. Pixka bat geroago, lapurra atxilotuta zegoen eta Amaia, Uxue, Iranzu eta Xabierri eskerrak eman zizkieten. Klasea igo eta Neskutz, gure klaseko ikaskide bat, kasetea falta zela konaturatu zen.

Beste kasete bat erosi genuen eta, geroztik, ez dugu itzala beldurgarriaren arrastorik ikusi. Baina ondoko klasean zeuden armarria eta mezua ezin izan ziren inoiz ezabatu. Zergatik...???

## **EGUZKIA HARRAPATU NAHI ZUEN UMEA**

**Miren Jiménez Muñoz**

**1. SARIA:** Lehen Hezkuntza 5. maila

**1º PREMIO:** Educación Primaria 5º curso

Santacaran, 5 urteko mutiko bat bizi zen. Aimar zeritzon. Aimarri eguzkia asko gustatzen zitzaion, baita ere... IGERI EGITEA!! Orain Aimarri gertatutako pasadizo bat kontatuko dizuet.

Egun batean, eguzkiaren azpian jolasten ari zela mendi bat ikusi zuen; eta hain polita zenez harrantz abiatu zen. Iritsi eta sekulako bista miresgarria ikusi zitekeen handik. Ibai bat zegoen Aragon izenekoan, Aimarrek inoiz ez zuen ibai hura ikusi. Eguzkiaren islada zegoen ibaian, baino Aimarrek hain txikia zenez ez zekien islada zer zen. Orduan Aimarrek sakeletik poltsa handi bat atera zuen, ibaira bota eta ordu bat egon zen islada harrapatzen. Azkenean esan zion Aimarrek:

- Ondo pentsatu dut eta... Hemen utziko zaitut eguzkitxo maitea.
- Berdin du Aimar, utz nazazu hemen, ni islada naiz eta -esan zuen eguzkiak.
- Baina zer? Nola dakizu nire izena? -hasi zen galdetzen Aimar:

Bat-batean "AGUR" bat entzun eta iluntzen hasi zen.

Aimar orain handia da. 15 urteko mutil sendoa bihurtu da. Eta orain ezagutzen dute "Eguzkia harrapatu nahi zuen umea" esanarekin. Zuek galdetuko duzue eguzkiaren isladak nola zekien hitz egiten, baina Aimarrek hainbeste maite zuenez eguzkia, bere asmaketa izan zen. Eta hala bazan edo ez bazan atera dadila Santacarako plazan!

## **AMAIAREN ISPILUA**

**Garazi Retegi Goñi**

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 5. maila

**2º PREMIO:** Educación Primaria 5º curso

Orain dela 5 urte Amaia izeneko neskatilari gertatu zitzaion istorio bitxi hau. Amaiak 10 urte zituen, eta abenturazale amorratu zen. Amaiak ile marroia, begi marroiak eta sudur txikia zuen. Baxua zen eta herri txiki batean bizi zen, bere gurasoekin eta bere ahizpa handiarekin. Amaia asko gustatzen zitzaion abenturazko liburuak irakurtzea, baina gehien gustatzen zitzaiona, abenturak izatea eta gero koaderno batean idaztea zen, handia zenean liburuak idazteko. Istorio hau gertatu zenean, Amaia abentura bila zebilen bere etxeko ganbaran.

Ganbarara sartu zenean, kutxa handi bat ikusi zuen. Han, bere amonaren gauza asko zeuden. Kutxan, kuleroak, galtzerdiak, ispilu bat... zeuden. Baina, gehien gustatu zitzaiona, ispilua izan zen. Ispilua hartu eta bere logelara joan zen, bere gurasoek ez ikusteko.

Bere logelan sartu eta ispilua begiratu zuen. Amaia lokartuta bezala geratu zen ispiluari begira. Horrela, 10 minutu igaro zituen, bere amak afaltzera deitu zion arte.

Hurrengo egunean, bere ahizpa bere logelan sartu eta ispilua ikusi zuen. Amaia, bere logelara sartu zenean, bere ahizpa ikusi zuen ispilua begiratzen eta konturatu zen bera bezala lokartuta moduan zegoela. Amaiak bere ahizpari deitu zion, baina bere ahizpak ispilua hartu eta herriko jende guztiari erakutsi zion.

Bi ordu pasata, Amaia konturatu zen herriko jende guztia desagertzen ari zela. Orduan, ispilua ikusi eta hartu egin zuen.

Ispilua hartu zuenean, hitz batzuk ikusi zituen. Irakurri eta esaten zuten: "zure herriko jendea salbatzeko, hiru gauza egin behar dituzu eta, hiru gauzak bilatu ondoren, zure herria bakean utziko dut".

Ispiluak lehenengo pausoa esan zion, eta lehenengo pausoa Egiptora joatea eta handik momia baten argazkia ekartzea zen. Amaiak ez zekien zer egin, baina oroitu zen irakurri zuen liburuan horrelako zerbait gertatu zela. Orduan, berdina egin zuen.

Bere etxera joan, argazki makina hartu eta ganbarara igo zen. Ganbaran bere amonaren kuxa begiratzen hasi zen eta magiazko liburu bat aurkitu zuen. Liburuaren sorginkeria bat irakurri eta Egiptora ailegatu zen. Egipton, liburuak behar izan zuen berriro piramide baten atea irekitzeko. Sorginkeria egin eta barruan sartu zen. Argazki makina hartu eta momia argazkia atera zion, baina, piramidetik atera bezain pronto eta atea itxi ondoren, konturatu zen magiazko liburuak barruan utzi zuela. Amaia Egiptora joan zen laguntza eske.

Ibiltzen zihoala, emakume zahar bat ikusi zuen. Amaia konturatu zen bere amonaren kutxan zegoen argazki batean ikusi zuela. Amaia bere atzetik joan zen eta galdetu zion ea bere amona ezagutzen zuen. Berak baietz esan zuen eta beste galdera bat egin zion, hau zena: "Magia egiten badakizu?" Emakumeak baietz esan zion eta Amaia bere herrira bidali zuen.

Amaiak argazkia ispiluari erakutsi zion, eta ispilua bigarren pausoa eman zion eta hau esaten zuen: "Orain, herri honetan ni bezalako ispilu bat aurkitu behar duzu".

Amaia pentsatzen jarri zen ea non egon zitekeen ispilua. Amaiak ez zekien non egon zitekeen ispilua. Orduan, etxe guztietatik hasi zen begiratzen.

Etxe batean, ispiluen katalogo bat aurkitu zuen. Begiratzen hasi zen eta ispilua agertzen zen, baina denda ez zegoen bere herrian, eta etxeak begiratzen jarraitu zuen.

Minutu batzuk geroago pentsatu zuen liburu batetan margotuta egon zitekeela eta liburutegira joan zen liburuak begiratzera. Liburutegiko liburu guztiak begiratu zituen, baina ez zegoen. Ordenagailuan nork zituen liburutegiko liburuak begiratu zuen. Azkenean, liburu batean ikusi zuen eta ispiluari erakutsi zion.

Ispilua azken proba pentsatzen hasi zen, eta esan zion:

- "Zure aitaren birramonaren amaren izena esan behar didazu!"

Amaiak ez zekien non bilatu eta bere etxera joan zen lo egitera, hurrengo egunean hobeto pentsatzeko.

Hurrengo egunean, pentsatzen jarri zen eta burura etorri zitzaion bere gurasoek genealogia zuhaitza zutela eta etxetik bilatzen hasi zen.

Logela bat begiratzeko gelditzen zitzaion, baina atea itxita zegoen. Bere aitaren giltzak hartu zituen eta guztiak erabili zituen. Atea ez zen ireki eta ez zekien zer egin. Bi minutu geroago oroitu zen bere amonaren logela zela eta agian kutxan izango zela. Amaiak kutxan begiratu zuen eta non mapa bezalako paper bat aurkitu zuen. Paper horretan gauza asko jartzen zituen eta giltza non aurkitu jartzen zuen, baina herria lehen bezala zegoen, hau da, zaharra zenean agertzen zen.

Liburutegira joan zen liburu baten bila. Liburuan herria zaharra zeneko mapa zegoen. Amaiak liburuak hartu, giltza aurkitu eta atea ireki zuen. Mahai baten gainean zegoen eta ispiluari erakutsi zion.

Ispiluak Amaia harririk jende guztia bakean utzi zuen. Amaia gurasoek Amaia ikusi zutenean zer gertatu zen galdetu zuten eta Amaiak dena kontatu zion. Harririk jende guztiak eskerak eman zizkion eta domina bat eman zioten.

Hortik aurrera herri horretako jende guztia ongi bizi izan zen.

Hala bazan ala ez bazan sar dadila Barañaingo plazan.

## NOLA IZAN PIRATA?

Javier Jorajuria Calvo

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Niri asko gustatzen zait irakurtzea piratei buruzko liburuak. Batzuetan, animaliei buruzkoak irakurtzen ditut eta abenturazkoak ere gustatzen zaizkit. Liburutegiko arduraduna ezagutzen dudanez liburuak denbora gehiago etxean izaten uzten dit. Horrexegatik piratei buruz asko dakit. Nire betiko galdera, nola lortu pirata izatea, eta beste piratekin borrokatzea zaila edo erraza den. Hamabost liburu irakurri ditut eta Ingalaterran bizi naiz. Betaurrekoak ditut, ile punkia, piraten irudia poltsa batean dut, eta alkandora beltzez jantzen naiz.

Otsailaren 20an, liburutegiko arduradunak sekretu bat erran zidan:

- Liburu honetan pirata nola bihurtu esaten dizute.

Ni oso pozik jarri eta korrika etxera joan nintzen. Lehenengo orrian, hitz arraro batzuk zeuden: "atarip nazi alon". Nik irakurri eta nire logelan sorgin-haize bat agertu zen.

Bat-batean Amazonas-en nengoela uste nuen. Ibili eta ibili egin nintzen hiru orduz eta bat-batean hondartza batean nengoen, piraten irudia marraztuta. Pentsatzen jarri nintzen eta hau bururatut zitzaidan: "Madagaskar! Piraten irla!".

Korrika uretara joan nintzen, baina ura ez zen gazia, geza baizik. Igeri egin nuen, eta itsasontzi batzuk ikusi nituenean, batera igo eta barruan piratak ikusi nituen. Han, pirata izateko probak egin ziren. Hori lortzeko zer egin behar zen galdetu nien eta hau esan zidaten:

- Horko tablan igo, buruz itsasora bota eta lehenengo itsasontzira joan.

Nik hori egin nuen.

- Nola duzu izena?- galdetu zidan kapitainak.

- Deniz- erantzun nion.

- Zertara etorri zara?

- Pirata izatera.

- Ederki! Horko bela ikusten al duzu? Horrat igo eta zure burua uretara bota. Beste bost proba gehiago pasa behar dituzu. Lau ongi egiten badituzu, pirata zara.

Lehenengoa oso zaila zen, baina pasatu egin nuen.

- Bigarrena Joscha piratearekin borrokatzea da. Ez da inor hil behar- esan zidan kapitainak.

Zoritxarrez ez nuen borroka irabazi.

- Orain uretara joan, lau arrain eta bale bat hil, eta itsasontzira ekarri.- Arrainak aurkitu nituen, baina balea ez.

- Puntu erdia da.- esan zidan kapitainak- Betaurrekoak dituzu, ezta? Orduan, kendu eta ikusi gabe hamar minutuz ibili ezerekin topo egin gabe.

Ez nuen asko ikusten, baina bi pauso aurrera eta bi atzera egitea lortu nuen. Hurrengoa oso erraza zen. Sua bilatu, eta kanoiak martxan jarri. Lortu egin nuen erretzaile bati pipa kentzen. Azkenak, mastilera igo eta ea norbait zetorren ikustea zen. Ez zen inor etortzen, eta, pirata nintzela esan behar zidanean...

- Deniz! Ez gelditu lo!- oihukatu zidan amak- Zazpiak dira eta eskolara joan behar duzu.



## ANIMALIEN MUNDUA

Maite Urra Gorospe

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Duela 10 urte Irati izeneko neska bat bizi zen. Bere urtebetetzea zen eta ez zekien bere gurasoei zer opari eskatu, horregatik bere gurasoei nahi zutena oparitzea eskatu zien.

Uztailaren 10a iritsi zen eta Iratik oparia irekitzean uzta bat ikusi zuen, alboan paper bat zegoen, baina Iratik oraindik ez zekien irakurtzen eta papertxoa paperontzira botatu zuen. Papertxoa hau jartzen zuen:

“Uztaia zeharkatzen baduzu animalien mundura joango zara”.

Iratik, jolasten ari zela, nahi gabe uztaia zeharkatu zuen, eta orduan animalien mundura joan zen bat-batean. Iritsi bezain laster Flaki izeneko katu bat hitz egiten hasi zitzaion eta hau esan zion:

- Kaixo, nik Flaki dut izena. Nik animalien munduan lagunduko zaitut erregearengana iritsi arte.

Iratik erantzun zion:

- Nik Irati dut izena. Hemen animaliek hitz egiten ahal dute?

- Bai. Hemen animalien munduan animaliek hitz egiten dute eta hemen animalia guztien erregea bizi da, Firinino izeneko. Orain txirrista honetatik botatu behar gara.

Flaki eta Irati txirristatik jaitsi eta uretara joan ziren; han, arrain bihurtu ziren. Negua zenez uraren goiko partea izozturik zegoen eta horregatik ezin ziren ur azpitik atera. Ibaia jarraitu zuten igerian eta itsasora iritsi ziren, hor marrazo batek ikusi eta jarraitu egin zituen harrapatu arte. Eta harrapatzean hau esan zion:

- Nire lagunak izan nahi duzue? Belarjalea naiz.

Iratik eta Flakik erantzun zuten:

- Bai. Nola deitzen zara?

- Tibu.

- Mesedez, izotza apurtzen ahalko zenuke?

- Bai noski. Nola ez.

Orduan Tibuk izotza apurtu zuen. Gero uretatik atera ziren (noski, Irati pertsona, Flaki katu eta Tibu txakur bihurtu ziren). Ordu asko ibili ondoren gaua etorri zen eta haitzulo batean lo egin zuten.

Hurrengo egunean puska bat ibili ondoren Firininoren etxera iritsi ziren. Atea jo zuten eta norbaitek ireki zuen. Han erregea zegoen, eta hau galdetu zion Iratiri:

- Nor zara zu? Irati al zara?

Iratik erantzun zion:

- Bai, baina nola dakizu?

- Ba nik zure gurasoei opari berezi bat saldu nien. Opariarekin nigana ekarri nahi zintudan, eta hau eman. Hau erloju magiko bat da, zuk asmatu beharko duzu nola erabili.

Iratik esan zion:

- Eskerrik asko. Baina zer esaten du erloju honek?

- Zuk galdetzen dizkiozun gauza guztien erantzuna esaten dizu, baina ez esan inori, hau sekretua da. Orain ate horretatik zure etxera iritsiko zara.

- Agur.

Iratik bere lagunei agur esan, atea zeharkatu, eta bere logelan agertu zen ezer gertatu ez balitz bezala. Gero asmatu zuen nola erabiltzen zen erlojua eta ez zion inori esan erloju magikoaren sekretua. Hortik aurrera Iratik ez zekizkien gauza guztiak erlojuari galdetzen zizkion.

## TRIKUHARRIEN SEKRETUA

Sarai Robles Vitas

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

I° PREMIO: Educación Primaria 6° curso



Ni Jon naiz, 12 urteko mutil bat. Barañainen bizi naiz eta Lauargi ikastetxean ikasten dut. Ile horia eta motza daukat eta begi handi eta urdinak. Nahiko altua eta mehea naiz, baina nire gelako asko ni baino altuagoak dira. Oso alaia eta ausarta naiz, eta baita oso ona kiroletan. Nire lagunik onena Itziar da. Nire gela berdineria doa. Ile marroia eta luzea du, sorbaldaraino iristen zaiona, eta beti mototsa batekin bildua darama. Ni bezain altua da, baina askoz meheagoa. Ikasketak kirolak baino hobeto ematen zaizkio, baina oso ausarta da, ni bezala. Haurtzaindegitik ezagutzen dugu elkar eta oso lagun minak gara. Kontatu behar dizuedan istorioa pasa den astean gertatu zitzaidan. Ateraldi bat egiten ari ginen mendian eskolarekin, eta bat-batean Itziarrek eta biok zerbeit ikusi genuen zuhaitz batzuen artean, harri multzo handi bat zirudiena.



Taldetik urrundu eta zer zen ikustera joan ginen. Hara iristean trikuharri bat zela ikusi genuen, eta Itziarrek eskatu zidan argazki bat ateratzeko horren barruan. Bat-batean, argazkia atera behar nuenean, izugarrizko oihua entzun nuen:

- Lagundu, lagundu Jon, lagundu!

Itziar zen oihu hori egin zuena. Berarengana hurbildu nintzen eta orduan ikusi nuen pixkanaka-pixkanaka lurtean hondoratzen ari zela. Eskua eman nion bera kanporatu nahian, baina ez neukan

indar askorik eta Itziarrekin batera hondoratu nintzen. Segundo batzuk geroago begiak ireki eta leku ezezagun batean aurkitu nintzen. Zuhaitz ugari zeuden, hemengoak baino askoz berdeagoak, eta baita sastraka eta lore asko ere. Lur guztiak belarra zirudien, hari urdinez josita zegoen, eta zerua gorri kolorekoa zen. Ez zegoen ez eguzkirik, ez ilargirik eta ez hodeirik, baina bai izar ugari. Leku ederra zen, misterioitsua, zirraragarria...

- Jon, nire erlojuak gelditu egin da, eta zurea?

- Bai, nirea ere- erantzun nuen nire erlojuak ikusita.

Bat-batean gure atzean soinu bat entzun nuen. Biratu eta hamar bat maitagarri txiki ikusi nituen. Bakoitzak kolore bat zeukan; horia, zuria, urdina, arrosa, gorria... Orduan gu inguratu eta haietako bat hitz egiten hasi zen.

- Kaixo. Gu maitagarriak gara, "Magikoa" munduko zaindaria.

- "Magikoa" mundua?- galdetu nuen nik.

- Bai. Hemen zuen planetan pertsonaia mitologiko deitzen dituzuen animalia guztiak bizi dira. Zuek izan zarete lur hauek zapaltzen lehenengo gizakiak.

- Aizu, hau dena oso polita da, baina gure mundura bueltatu beharra dugu- esan zuen Itziarrek.

- Ongi, baina hara bueltatu baino lehen herrira joan beharko duzue, han baitago Unibertso

Agentzia. Handik baino ezingo zarete itzuli- erantzun zuen maitagarriak.

- Baina ez dakigu horraino nola heldu.

- Oh! Nik eramango ditut kapitain- esan zuen maitagarri berdeak.

Eta horrela abiatu genuen bidaia. Gure bidean zehar gauza interesgarri ugari ikusi genituen: basajaunak, sorginak, lamiak, trikuharri gehiago, akelarre bat, tartalo... Pena handia ematen zidan mundu hori utzi beharrak! Eta ordu erdi geroago (gutxi gora behera, gure erlojuek ez zuten funtzionatzen eta) iritsi ginen herrira. Unibertso Agentzia herriko eraikinik garaiena zen. Hogei pisu edo izango zituen! Barrura sartu eta harriturik geratu ginen. Gela more batean geunden; paretak bakoitzean hitz bat zegoen idatzita urre koloreko letrekin, eta denak elkarturik hau irakurri ahal zitekeen: "hitz batekin nahikoa dugu".

- Hitz horiek oso zerbitzu ona direla esateko balio dute- azaldu zigun maitagarriak.- Gizakien mundura joateko hamargarren pisura joan beharko duzue.

Momentu horretan erratz sorgindu bat hurbildu zitzaigun hegan. Gainera igo eta hamargarren pisuraino eramán gintuen. Maila horretan ez zegoen inor gehiago. Pasabide luze bat baino ez zen. Bukaeran bi ate zeuden.

- Ziurrenik bat aukeratu beharko dugu, filmetan bezala, baina zein?- galdetu zidan Itziarrek.

Azkenean eskuineko atea hautatu genuen. Atea ireki eta gela borobil batean aurkitu ginen. Paretak harriz eginak zeuden, lurzorua eta sabaia bezala. Gelaren erdian herensuge handi bat zegoen. Bat-batean, hitz egiten hasi zen:

- Gizakien mundura joan nahi baduzue nire bi asmakizunak asmatu beharko dituzue. Lehenengo: gauden pisuari bost kendu, sei gehitu eta gauden pisuaz zatitu. Zer zenbaki geratzen da?

- Ea, hamar ken bost... eta...ah! Badakit: 1,1 zenbakia!- erantzun zuen Itziarrek nik pentsatzeko denbora izan baino lehen.

- Ongi. Bigarrena: zer da gehiago kendu ahala handiagoa egiten dena?

- Zuloa!- erantzun nuen nik.

- Oso ongi- esan zuen herensugeak, eta hegan alde egin zuen.

Orduan dena ilundu eta oinak lurretik altxatu zitzaizkigun. Segundu batzuk geroago lurrera erori ginen. Begiak ireki eta, bai! Mendian geunden eta erlojuak funtzionatzen hasi ziren. Urru- nean gure ikaskideak zeuden, joaten utzi genituen toki berberetan.

- Itzuli gara, Jon! Hemen gaude berri! YUPIIIIIII!

- Bai, egia da, baina ez diegu kontatu behar trikuharrien sekretua. Guretzat gordeko dugu, ados?

- Bai, baina goazen lagunekin, bestela galdu egingo gara.

Eta korrika joan ginen ikaskideekin, baina ez genien ezer esan, eta ziur nago zuk ere ez duzula ezer esango, ezta?

## ALBUM MAGIKOAN SARTURIK

**Ainara Leceta Maraión**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 6° curso

Kaixo, ni Ainara naiz. 11 urte ditut eta orain dela hilabete batzuk gertatu zena kontatuko dizuet. Nire gurasoei askotan galdetu diet nola ezagutu zuten elkar baina inoiz ez didate erantzuten.

Egun hartan ez nuen ezer egitekorik eta nola izan zen nere gurasoen maitemintzeaz oroitu nintzen, nere amari galdetzera nindoala pentsatu nuen: "inoiz ez dit erantzuten eta gainera bronka botako dit berriro galdetzeagatik. Alferrrik da". Azkenik argazkiren bat ote zegoen bilatzen hasi nintzen baina ez zegoen ezer. Bat-batean argi bat piztu zitzaidan esaten zidana "trastelekan

gauza zaharren artean zerbait badago". Korrika jaitsi eta dena hankaz gora jarri ondoren argazki album bat aurkitu nuen.

Gora igo ordeztastelekuan gelditu nintzen. Irekitzera nindoala jartzen zuen "lehenengo be-deratzi urteak haurra izan baino lehen". Irekitzera nihoala, lehendabiziko argazkia diskoteka batean zen, baina argazkia aztertu orduko dantzatzan nengoan eta pertsonen artean nor eta nire aita eta ama. Oso beldurtuta edariak banatzen zituenari galdetu nion:

- Barkatu, ze urte da hau?
- 1986 da! Ze, tuntu zara, ala? -erantzun zidan ahots zakarrez.

Nik kasurik egin gabe han jarraitzen nuen baina ez nuen ezer ulertzen: arropa oso arraroa zen eta nire gurasoak oso gazteak ziren, gainera argazkiko eszena berdinak zeuden, bitxiegia iruditzen zitzaidan. Dena arakatu ondoren ohartu nintzen argazkian sartuta nengoela baina ez nekien nola itzuli. Pixagura sartu zitzaidan eta komunera joan nintzen. Eserita nengoela zulutik erori eta afari dotore batean agertu nintzen, berriro nire gurasoak, apain-apain jantzita afaltzen zeuden, zita bat zirudien, eta geroxeago oroitu nintzen diskotekan argazki barrenean banengoan hau izango zela hurrengo argazkia eta gertaera. Oso aspertuta nengoan, dena isilegia zen, horregatik komunera joan, eseri eta beste argazki batera aldatu nintzen. Baina hurrengo lekua ez zen Barañain edo Lruña, orain bizi naizen tokia, "Erroma" baizik. Nere gurasoak oporretan zeuden; jakin nuen urrutetik "Vaticanoa" ikusi ahal nuelako eta nire aita eta ama "Koliseoa" bisitatzen zeudelako. Hori ikusita iturri eder baten ondoan eseri eta, ez dakit nola, uretara erori nintzen, gero parke batean agertu eta hortxe zeuden eserita gurasoak belarrean; toki hura ezaguna egiten zitzaidan, baina parkearen izena galdetu arren izenik ez zeukala esaten zidaten. Aspertuta, txirristara igo eta bota egin nintzen, hainbeste bidaiaz nekata nengoan eta etxera itzuli nahi nuen baina ez nekien nola. Saiatu nintzen komunean eserita, eta berriro jatetxe dotore batean agertu nintzen; ez zen lehengo bera, beste bat zen, nire aita belauniko zegoen, zerbait zeukan eskuan, urrezko eraztun bat; bat-batean, hau entzun nuen:

- Nirekin ezkondu nahi al duzu? -nire aitaren ahotsa.
- Bai, nahi dut- amaren erantzuna.

Nik hain emozionatuta oihukatu nuen:

- Biba! Nire gurasoen artekoa hasieratik deskubritzen ari naiz.

Gero eta gogo gehiago nituen beste argazki batean egoteko; praktika asko neukanez, korrikan komuneko zulutik behera erori eta ezkontzeko soinekoen dendan agertu nintzen. Amak soineko txuri bat zeraman, gero beste bat, jantzia aukeratzen ari zen ezkontza laster izango zelako, baina nire aita ez zegoen eta kalera aterako nintzen bilatzera: errepidearen beste aldean zegoen, trajea, gorbata eta zapatak erosten; baita nire amona zegoen, edalontziak, loreak eta apaingarri guztiak ordaintzen... irrikaz nengoan ea noiz iritsiko ezkontzaren argazkia. Bertan ez zegoen komunik, orduan soineko dendara sartu eta, hainbat soinekorekin, bat probatzera nindoala aldagelan, desagertu egin nintzen. Hurrengo tokia eliza zen, ezkontza eguna, hau poza! Oso politak zeuden denak apain-apain. Ezin nuen denborarik galdu eta ezkontzan bakarrik hamar minutu egon nintzen. Gauza gehiago jakin nahi nituen eta elizako atetik irtetean, "Tunisian" nengoan, oso erraza izan zen jakitea nire aurrean txartel bat zegoelako "TUNISIA" jartzen zuena. Belarrean nire gurasoak zeuden, hodeiei begira, zeinen zoriontsu ziren biak bakean elkarrekin, ni agertu nintzen arte; oso kuxkuxeroa naizenez, eta ez nindutenez ezagutzen, galdetu nien:

- Kaixo bikote, ze gau ona. Zer ospatzen ari zarete?
- Eztei bidaia ospatzen ari gara -erantzun zidaten.
- Eskerrik asko, disfrutatua. Agur -esan nuen.

Hodeiei begiratzeaz aspertuta, ondoko parkeko txirristatik bota nintzen ea nire lehengo etxera iristen nintzen, baina ez zegoen inor. Leihotik begiratu eta zikin-zikin zeuden txuriz eta gorriz

jantzitako neska bat eta mutil bat; nire gurasoak ziren, bere lehenengo San Ferminak elkarrekin ospatzen. Gogo handia neukan barraketan igotzeko baina ez zegoen denbora askorik, aski neukan zeinen ondo pasatzen ari ziren ikustearekin. Ondoren igogailuan sartu eta festa baten erdian nengoan, hauxe entzuten zen:

- Zorionak Mikel.....

Nire aitaren urtebetetzea zen eta nire ama zerbait oparitzen ari zitzaion baina ezinezkoa zen ikustea. Urte askotan ospatu dudanez saltatu egin nahi nuen, baina nola? Bat-batean haize bolada bat etorri zen eta beste festa batean nengoan, oraingoan nire amonaren etxean zen eta nire familiako gehienak zeuden, oihukatzen:

- Zorionak Ana.....

Nire amaren urtebetetzea, berriro opariak. Aspertuta, etxetik atera eta toki ilun eta borobilean agertu nintzen, oso txikia nintzen eta pelutxe baten antzeko neurria neukan. Ohartu nintzenerako etxeko trastelekuan nengoan, badakizue zergatik, nire amaren sabeletik jaio nintzelako eta hortik aurrera badakidalako dena.

Orain ulertzen dut zergatik ez zidaten ezer esan nahi, oso kuxkuxeroa naizelako, zerbait kontatzen bazidaten gehiago jakin nahi izango nukeelako eta gero argazkiak ikusi nahiko nituen, eta nire gurasoek bazekitelako album magikoarena. Hortik aurrera ikasi dut ez zaidala guztia axola eta jakin behar dudana bakarrik dakidala, ez naiz lehen bezain kuxkuxeroa.

## BI ARRAUTZAK

**Mikel Lasarte Cía**

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**2º PREMIO:** Educación Primaria 6º curso

Jon eta Iker herri txiki batean bizi ziren. Tira, zen hain txikia, eskola bakarra zeukan-eta. Eta eskola horretan zazpi ikasle ziren. Jon eta Iker anaia bikiak ziren, berdin-berdinak. Gustu berdinak zituzten ere.

Eskolako egun normal batean eskolara zihoazela, bat-batean gelditu egin ziren. Zuhaitz batean bi arrautza aurkitu zituzten. Baina ez ziren nolana hikoak, guztiz moreak ziren eta gainera arrautza bakoitzean zerbait zegoen idatzita. Hartu egin zituzten eta batean hau zegoen idatzita: "Jaten banauzu oso pobrea izango zara". Eta bestean: "Jaten banauzu oso aberatsa izango zara". Harrituta geratu ziren. Ez zekiten zer esan. Baina azkenean Jonek esan zuen:

- Zorteak erabakiko du nork jango duen aberatsa izatekoarena. Idatzita dagoena ezabatu eta bakoitzak bat jango du.

- Ados nago -erantzun zion bere anaiak. Ezabatu egin zituzten baina bat-batean Ikerrek erloju begiratu eta bederatzia bat gutxi zirela ikusi zuen.

- Berandu goaz! -oihukatu zuen. Arrautzak motxilan gorde eta eskolara korrika joan ziren.

Pixka bat berandu iritsi ziren eskolara. Eta iritsi bezain pronto, maisuak Ikerri deitu zion arbelean eragiketa batzuk egin zitzaion. Orduan Martinek, klaseko batek, Ikerren motxila hartu zuen eta ez zen inor konturatu. Martini asko gustatzen zitzaion lapurtzea. Isil-isilik motxilako gauzak ateratzen hasi zen eta bi arrautzak aurkitu zituen. Iker mahaira heldu baino lehen utzi zuen motxila berriro lehengo lekuan.

Jolas-ordua iritsi zenean, Iker motxila begiratzen hasi zen arrautzak hartzeko. Baina noski, ez zituen aurkitu. Gertatutakoa kontatu zion Joni eta hau ere harrituta geratu zen. Denak patiora zihoazela Martin pasilloko txoko batean gelditu zen. Arrautzek oso goxoak ziruditen eta bat jan zuen. Eta orduan poltsikoan zeukan dirua desageratu zitzaion eta bere arropa erabat aldatu zi-

tzaion. Lehengo praka garestiak praka zahar-zaharrak ziren, zuloz beteta. Berdin-berdina gertatu zen kamisetarekin. Martin nazkatu egin zen eta beste arrautza lurrera bota zuen amorruz. Eta bat-batean gizon bat agertu zen, urrez beteta. Eskolatik alde egin zuen gizon horrek.

Hori gertatu eta gero Martinek lkerri kontatu zion bera izan zela lapurra eta zer gertatu zitzaion. lkerrek Joni ere kontatu zion eta bieki gauza bat erabaki zuten: arrautza horiek nondik sortu ziren jakitea. Era guztietako liburuetan begiratu zuten eta Jonek azkenean mitologia liburu batean hau irakurri zuen: "Bada hegazti bat oso handia, jartzen dituen arrautzetan zerbait daukana idatzita. Edozein zuhaitzetan jartzen ditu eta nahi duenean ikusezin bihur daiteke". Harri eta zur geratu ziren hori jakitean.

Hurrengo egunean egunkaria irakurtzean hauxe irakurri zuen lkerrek: "Pertsona batek 3.000.000-ko etxe bat erosi du hiriko udaletxe plazan. Diru guztia aldi batean ordaindu du (ez du epeka ordaindu). Dirua nola lortzen duen galdetzen diogun guztietan ez digu erantzun nahi". lkerrek eta Jonek gizon horrekin hitz egitea erabaki zuten.

Amari hirira joan nahi zutela esan zioten.

- Zertarako? -galdetu zuen amak.

- Ezagun batekin hitz egin behar dugu. Gizon aberats horrekin. Gauza garrantzitsu bat esan behar diogu.

- Ez, ez dizuet utziko -esan zien amak.

Jonek eta lkerrek hau erabaki zuten: hiriko autobusa hartzea ama konturatu gabe. Beraz, 17:00etan autobusez joan ziren udaletxe plazara. Jonek mitologia liburua hartu zuen behar bazuten ere. Eta han ikusi zuten, etxe handi eta ikusgarria. Lotsa pixka batekin baina hor jo zuten tinbrea. Gizon bat atera zen, harribitxiz betea.

- Nortzuk zarete? -galdetu zuen. Jonek esan zuen:

- Gauza garrantzitsu bat esan behar dizugu. Badakizu zergatik zaren hain aberatsa?

- Ba egia esan, ez dut ideiarik zergatik... -erantzun zuen gizonak lotsatuta.

- Guk badakigu -hasi zen Jon bat-batean -badago hegazti bat arrautza batzuk jartzen dituen. Arrautza horietako batetik sortu zinen zu. Diru askorekin, gainera.

- Eta zein da hegazti hori? -berriro gizonak. Jonek liburuan agertzen ziren xehetasun guztiak kontatu zizkion hegaztiari buruz.

- Orduan goazen harrapatzera txori hori. Niretzat izango da... diru asko izango dut... -pentsatzen hasi zen gizona.

- Ondo da. Hegaztia bilatzen laguntzen badizugu dirua eman beharko diguzu -esan zuen lkerrek.

- Ados. Baina lehenago harrapa dezagun txori hori.

Jonek liburua begiratu eta ordu horietan basoan egoten zirela ikusi zuen. Hiri ondoan dagoen basora irten ziren beraz. Ibiliz eta ibiliz zuhaitz baten gainean zegoela ikusi zuten. Sareak atera eta... zas! Hegaztia harrapatu zuten. Gizonaren etxera joan ziren.

- Tira, emaguzu dirua -eskatu zion Jonek.

- Bai zera! -egin zuen barre gizonak eta atea itxi zuen.

Hegaztiaren garrasiak entzun zituzten etxe kanpotik. Tristetu egin ziren. Eta hauek erabaki zuten hegaztia libratuko zutela.

Harri bat hartu eta leiho bat apurtu zuten. Leihoa baxua zenez biak erraz sartu ziren etxera. Gela batean aurkitu zuten hegaztia atean loturik. Hegaztia askatu zuten baina bat-batean gizona zetorrela entzun zuten. lkerrek ideia bat izan zuen. Gizona iritsi zenean, ez zegoen inor gelan. Biak leihotik irten ziren hegaztiaren gainean. Ez dakit magiaz-edo, baina beraien etxean utzi zituen. Eta hegaztiak alde egin zuen.

Ez dakit egia den, baina nonbait esaten dutena gizona infartuak emanda hil zela dirua nahi zue-

lako. Eta ere ez dakit egia den hurrengo istorio hau:

Itxiki eta Ibai herri txiki batean bizi ziren. Eskolara zihoazela bi arrautza ikusi zituzten bat-batean eta...

# BIHOTZ FORMAKO HARRIBITXIA

## Bidane Zabalza Alonso

**2. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**2º PREMIO:** Educación Primaria 6º curso

Behin, Alkiza izeneko herri txikian, Bernardo izeneko gazte atsegin bat bizi zen. Bere ilea horia zen eta bere begiak urdin-urdinak, bi zafiro bezalakoak. Gehien gustatzen zitzaiona kirola egitea, irakurtzea, bere lagun minarekin jolastea eta maite zuen neskaren ondoan egotea zen. Paola zuen izena. Neska gazterik ederrena eta argiena zen. Paolari Bernardorekin egotea ere gustatzen zitzaion eta bera ere Bernardoz maitemindurik zegoen. Bernardo, bere lagun mina Brunorekin hitz egiten hasi zen:

- Paola maite dut eta berari esateko gogoia daukat baina... Berak ez nauela maite esaten badit...

- Baina esan beharko diozu! Bestela, beste batekin joango da! Eta neskalagunik gabe geldituko zara. Badakit! Zergatik ez diozu bihotz formako harribitxia ematen? -erantzun zuen Brunok.

- Baina munduan bakarra dago eta ez dakit non dagoen. Baina Paolarengatik egingo dut!- Bernardok.

Bernardo prestatu eta mundutik ibiltzen hasi zen. Hiri, herri, leku arrikutsu guztietatik igaro eta jende asko ezagutu zuen:

- Kaixo, bihotz formako harribitxiaren bila nabil. Badakizue non dagoen? -galdetzen zuen Bernardok.

- Ez, barkatu. Ez dakigu non dagoen -esaten zuten denek.

Beti bilatzen zegoen eta ez zuen ezer aurkitzen. Inork ez zekien non zegoen. Bernardok gau guztietan Paolarekin amets egiten zuen, ez zuen burutik kentzen. Baina bilatzeaz nekatzen hasi zen eta bi urte ondoren Alkizara itzuli zen. Etxean zegoen pentsakor, ez zekien Paolari zer esan:

- Oso triste jarriko da ez dudalako harribitxia aurkitu eta ez da inoiz nirekin ezkonduko! -esaten zion bere buruari.

Asko pentsatu ondoren, munduari berriro buelta ematea erabaki zuen. Berriro ere leku arrikutsu guztietatik igaro zen, baino oraingoan bost gazterekin topatu zen:

- Aizu! Zer egiten duzu hemen? Ezin zara hemen egon! Leku hau gurea bakarrik da! -esan zuen batek.

- Ez, ez, ez. Leku hau ez da zuena. Publikoa da. Hemen edonor egon daiteke. Utzi pasatzen, mesedez -erantzun zuen Bernardok.

- Ez! Gurea da! Eta hemendik pasatu nahi baldin baduzu ordaindu beharko duzu! -esan zuen beste batek.

Bernardok ez zeraman dirurik eta buelta eman zuen beste lekutik joateko. Baina beste bost gazte azaldu ziren eta hamarren artean Bernardo jipoitzen hasi ziren. Ezin zuen gehiago, ez zuen bihotz formako harribitxia aurkitzen eta beste bi urte ondoren Alkizara besoa hautsita itzuli zen:

- Bernardo!!! Non egon zara? Lau urte igaro dira elkar ikusi gabe -esan zuen Paolak kezkatu-rik.

- Baina ez dizu Brunok esan bihotz formako harribitxiaren bila joan naizela? Zuretzako bilatzen ari nintzen! Maite zaitudalako!

- Benetan? Brunok esan zidan ez ninduzula maite eta beste herri batera joan zinela bizitzera - Paolak.

- Ez, Paola. Gezurra esan dizu. Nik asko maite zaitut. Nirekin ezkondu nahi duzu? -galdetu zion Bernardok.

- Ez! Ez da zurekin inoiz ezkonduko. Nitaz maiteminduta dago! -esan zuen Brunok bat-batean.

- Bruno! Gezurra esan didazu! Harribitxia zuk daukazu eta Bernardori ere gezurra esan zenion nire ondoan ez egoteko! Oso maltzurra zara, ez zaitut maite eta ez naiz zurekin sekula ezkonduko! Bernardorekin ezkonduko naiz -erantzun zuen Paolak.

Handik bi hilabetera Bernardo eta Paola elkarrekin ezkondu ziren. Lau seme-alaba izan zituzten eta oso zoriontsuak izan ziren.

## USURBILEKO URAREN ISTORIA

**Ane Lore Iriarte Zemborain**

**I.SARIA:** Bigarren Hezkuntza I. DBH

**I° PREMIO:** Educación Secundaria I° ESO

Nire izena Martin da eta Usurbil izeneko herri batean bizi naiz. Diruz ez nabil ondo baina hala ere zoriontsu bizi naiz. Nire herrian ur asko erabiltzen da. Golf zelai batean milaka litro erabiltzen zituzten astean, igerilekuetan milioika litro. Jendeak pentsatzen zuen ura ez zela agortu behar udazkenean zeudelako eta euri asko egiten zuelako normalean. Herrikoek ur asko gastatzen zuten bainatzen, dutxatzen... horrela bizitzen ohitu ziren, ura inoiz bukatuko ez balitz bezala. Denbora asko pasa zen eta uda iritsi zenean, igerilekuak asko erabiltzen ziren eta astero aldatzen zuten ura; horrek esan nahi du milioika litro ur erabiltzen zutela igerilekuetan. Gero golf zelaietara jende asko joaten zen udan eta noski, ureztatu behar da, eta horretarako ur asko behar da. Jendea ere udan asko dutxatzen da.

Egunak eta egunak pasatzen ziren eta euririk ez zuen egiten, beraz gutxika-gutxika ibaiak lehortzen joan ziren eta aintzirak urik gabe geratzen.

Alkateak zinegotziak bildu zituen hori konpontzen saiatzeko. Zinegotzi zaharrenak esan zuen adituek aspaldidanik gero eta ura gutxiago zegoela abisatzen zutela. Patxi errementariak golf zelaien errua zela zioen. Eta Irunek berriz jendeak etxeetan ur asko erabiltzen zuela zioen. Alkateak esan zuen irtenbide bakarra ur gutxiago erabiltzea zela eta horretarako egunean ordu batean bakarrik erabiltzea zela.

Herriko jende gutzia udaletxeko plazan elkartzeko agindua eman zuen alkateak. Plazan inor ez zenean falta, udaletxeko balkoira atera eta egunero ordu batean erabili ahal izango zutela ura esan zuen, euria egin arte. Eta norbaitek ideia hobea gogorik baldin bazuen berari esatea.

Ni pentsatzen egon nintzen eta ez zitzaidan ezer ere ez bururatu. Etxerako bidean baratza landu behar nuela oroitu nintzen. Putzua ondoan zegoenez pentsatzen geratu nintzen eta ideia bat bururatu zitzaidan:

Herrian zuloak egitean putzu gehiago sortzen ziren ura izateko herriko biztanle guztientzako. Eskuan nituen haziak lurrian utzi eta korrika udaletxera joan nintzen. Alkateari nire ideia kontatu ondoren alkatea oso konforme ez nuen ikusi eta galdetu nion:

- Zer, ez zaizu ideia ona iruditu?

- Ideia ona da baina arazo bat ikusten dut- esan zidan alkateak.

- Zein da arazo hori?- galdetu nion.

- Ba... lan hori egiteko pertsona aurkitzea oso zaila izango dela.

- Ez kezkatu, nire kontu utzi!

Orduan nik interneten bidez laguntza eskatu nuen, lan hori egiteko.

Hurrengo egunean milaka mezu jaso nituen, laguntza eskaintzen. Guztiei erantzun nien, hu-



rrengo astean herrira etortzeko denen artean lana egitera.

Larunbata iritsi zen eta herria jendez beteta zegoen. Gizon batek makila bat ekarri zuen ura non zegoen aurkitzeko, horrela jakiteko non egin behar genituen zuloak. Arratsalderako 5 zulo genituen eta guztiak urez beteta.

Herriko jendea poztu zen berriro ura erabiltzen ahal zuelako, eta alkateak afari bapoa eskaini zuen laguntza eman zuten denen omenez.

Herriko jendeak hain gaizki pasa zuenez, interneten bidez haien esperientzia eta hainbeste ura ez gastatzeko mezua zabaldu zuten. Handik aurrera jendeak ez zuen hainbeste ura erabiltzen, eta erabiltzen bazuten, gero landareak urreztatze edo beste gauzetarako aprobetxatzen zuten.

Baina nik kezkatuta segitzen nuen, buruari milaka buelta eman ondoren igerilekuetako ura berriro erabiltzeko makina bat asmatu nuen. Salgai jarri nuen eta beste herritako jendeak eskatu zidan. Makina horrekin ura asko aurrezten zen eta jendea hasi zen ura modu egokian erabiltzen. Modu horretan ur nahikoa izan zen handik aurrera. Eta nik diru asko irabazi nuen asmakizun horri esker.

## MIKELEN TXAKUR GALDUA

**Maite Uriarte Belzunegi**

**I. SARIA:** Bigarren Hezkuntza 1. DBH

**I° PREMIO:** Educación Secundaria 1° ESO

Bazen behin Mikel izeneko mutiko bat. Mikelek 12 urte zituen eta Erratzu izeneko herri txiki batean bizi zen. Erratzu mendiz inguratutako herria zen eta baso asko zeuden. Mikel bere arreba Ainara eta bere gurasoekin bizi zen eta txakur bat zeukaten, Kiler izenekoa. Txakurra paseatzera txandaka ateratzen zuten: astelehenetan eta astearteetan Mikelen amak ateratzen zuten, asteazkenetan eta ostegunetan Mikelen aitak, ostiraleetan eta larunbatetan Mikelek eta igandeetan Mikelen arrebak, Ainarak. Ainara oso txikia zen eta horregatik ateratzen zuten Kiler egun bakarrean paseatzera.

Ostiral batean, Mileken txanda zenean txakurra ateratzeko oso egun txarra egin zuen, euritsua eta lainotua, baina hala ere txakurra atera beharra zuen, bestela etxean egotea egun osoa Kilerrentzat txarra zen, beraz kalera irten zen txakurrarekin.

Bat-batean txakurrak alde egin zuen eta laino artean ezkutatu zen. Mikel bere atzetik joaten saiatu zen baina ez zuen ezer ikusten. Orduan geldi geratu zen, txakurrari zein tokitara joatea gustatzen zitzaion pentsatzen. Bat-batean Mikel gogoratu zen Kilerri basora joatea asko gustatzen zitzaioela, zuhaitzak asko gustatzen zitzaizkiolako eta bere bila basora joatea pentsatu zuen herri-tik oso hurbil zegoelako. Basoan sartu egin zen, laino itxia zegoenez ez zuen ezer ikusten eta denbora osoan aurrerantz joatea pentsatu zuen.

Halako batean oso urruti zegoela konturatu zen, denbora asko zeramalako ibiltzen. Ez zen aurrerago joan. Ordu batzuk igaro zituen hor, azkenean lainoa desagertu egin zen. Bere ingurura begiratu zuen eta galdu egin zela konturatu zen, dena ezezaguna zelako. Ez zekien zer egin eta oso bakarrik sentitzen zen, beldur handia zeukan. Iluntzen hasi zen eta etzuen etxerako bidea aurkitzen. Etxerako bidea bilatzen ari zela kobazulo bat aurkitu zuen eta barrura sartzea erabaki zuen babes gehiago izateko. Kobazulo barrura sartu, lurrean etzan eta lo geratu zen.

Hurrengo egunean kobazuloa oso sakona zela iruditu zitzaion eta barrura sartzea erabaki zuen, zer zegoen ikusteko. Kobazulotik zihoala hots batzuk entzun zituela iruditu zitzaion. Geroz eta sakonago zihoala orduan eta altuago entzuten ziren hotsak:

- Lagunduuuuuuuu!!!! Lagunduu!!!!

Oso hots arraroak ziren, ez ziruditen pertsona batenak baina euskaraz oihu egiten zuen. Mikelek ez zekien nondik zetozen oihuak baina kobazulorantz sartu ahala orduan eta altuago eta argiago entzuten ziren hotsak. Mikelek aurrera jarraitu zuen baina halako batean beldurra sentitu zuen eta aurrerago ez joatea erabaki zuen. Zegoen tokian geratu zen eta han igaro zuen eguina, bakar-bakarrik.

Hurrengo goizean esnatu zenean, ez ziren oihuak entzuten eta Mikelek aurrera jarraitzea erabaki zuen. Amaierara iritsi zenean kaxa bat ikusi zuen, eta bat-batean oihuak berriro hasi ziren. Oihuak kaxatik zetozen eta Mikel kaxa irekitzen hasi zen. Kaxa ireki zuenean hontz bat agertu zen, marroia eta begi handiekin. Mikel harrিতuta geratu zen, hontz bat hitz egiten ari zelako. Hontzak eskerrak eman zizkion kaxatik ateratzeagatik eta mesede bat zor ziola esan zion. Orduan Mikelek etxerako bidea erakusteko eskatu zion, baina hontzak ez zekien non bizi zen Mikel eta beste hontzen bila joan zen Mikelen etxea non zegoen galdetzerara. Beste hontzek ez zekiten, berriak egunetz lo egoten zirelako eta gauez esnatzen zirelako, eta Mikelek alderantziz egiten zuen.

Mikel kobazulotik atera zen eta etxerako bidea bilatzen hasi zen. Hontzak esan zion laguntza behar bazuen oihu egitea eta bera joango zela laguntzera. Mikelek etxerako bidea bilatzen jarraitu zuen eta bat-batean zuhaitz baten adarrean lehenengo hontza bezalako bat ikusi zuen baina ez zen lehengoa, hau bereziagoa zen. Hontz hau egunean zehar esnatuta egoten zen, eta gauetan lo egiten zuen. Mikelek bere bidea jarraitu zuen eta hontzak jarraitu egiten zion.

Ilundu egin zen eta aurreko eguneko kobazulora itzuli zen Mikel, eta hontza bere atzetik. Mikelek hontzarekin egin zuen lo, eta lagunak egin ziren. Hurrengo egunean Mikelek bere etxerako bidea bilatzen jarraitu zuen. Bat-batean hontza Mikelen aurretik jarri zen eta Mikel hontzaren atzetik joan zen. Ordu erdi beranduago Mikelek bere etxea ikusi zuen, hontzak etxeraino lagundu zuen. Mikel korrika joan zen etxeraino eta bere gurasoei eta bere arrebari dena kontatu zien. Mikel kanpora irten zen hontzari eskerrak ematera baina ez zuen aurkitu.

Hurrengo egunean Mikelek bere txakurra asko faltan bota zuen eta oihu bat egin zuen. Berehala mesede bat zor zion hontza agertu zen. Mikelek bere txakurra aurkitu nahi zuela esan zion eta hontza bila hasi zen. Bi egun igaro ziren eta hirugarren egunean mesede bat zor zion hontza agertu zen txakur batekin, baina ez zen bere txakurra.

Mikelek bere txakurra ez zela esan zion eta hontza harrিতuta geratu zen, eta ez zuela txakur gehiago ikusi esan zion. Orduan Mikelek bere txakurra betirako galdu zela pentsatu zuen. Egun batzuk geroago Mikel bere ohean etzanda zegoen, eta leihoan hots batzuk entzun zituen. Leihoara gerturatu eta etxeraino lagundu zion hontza agertu zen.

Mikel korrika kalera irten zen eta orduan hontza oso azkar hasi zen hegan eta eskolara sartu zen. Arbelaren aurrean jarri zen eta klariona bat bere hankekin hartu zuen. Arbelean idazten hasi zen:

- Kiler naiz, zure txakurra, baina putzu batera erori nintzen eta ur berezi bat edan nuen. Orain hontza bihurtu naiz eta ez dut berriro txakurra izan nahi, orain hegan egin dezaket eta aske bizi naiz, baina ez kezkatu, nik gauean zuek zainduko zaituztet eta egunean lo egingo dut beste hontzek bezala.

Mikelek onartu egin zuen eta bere familiakoei kontatu zien. Denak ados zeuden eta orain Mikelek ez du txakurrik, hontz bat dauka. Gauetan bere leihoan eserita egoten da bere etxea zaintzen eta ez da etxe barruan bizi behar: orain aske bizi da eta nahi duenean hegan joaten da herriko txakurrengana, eta basora ere, hontzengana, eta lagun asko ditu.

## AMETSEN BILA

Asier Gordo Baztan

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Bazen behin Kintxo izeneko mutil bat. Kintxo Afrikan bizi zen, Senegalen hain zuzen ere. Aitak Kik izena zuen, amak Muru eta arreba txikiak Jana.

Egurrezko etxetxo txiki batean bizi ziren lauak. Bizitzeko moduak oso txarrak ziren: ez zuten urik etxean, eta herritik kilometro batera zegoen iturrira joan behar zuten hartzera, ez zuten argirik, janaria oso eskasa zen, ez zuten lanik, umeak ez ziren eskolara joaten...

Baina halako egun batean gurasoek Europara etortzea pentsatu zuten; ura etxean izango zutela, lana biek, argia etxean, umeak eskolara joango zirela eta janaria ugariagoa izango zutela iruditzen zitzaien.

Baina baita ere uste zuten oso zaila izango zela lehen aipatu ditudan gauza guztiak benetan izatea. Pentsatu eta egin, herriko guztiak agurtu, etxean zituzten gauza guztiak hartu eta haruntz abiatu ziren, patera batean beren ametsen bila. Ateratzerakoan itsasoa bare zegoen, baina pixka bat itsasoan sartu ondoren, patera alde batetik bestera joaten hasi zen. Gauak eta egunak igaro ondoren, halako batean... urrunean irla bat ikusi zuten! Kanaria Handia irla zen eta haren hondartzara iritsi bezain laster; patera erdi apurturik han utzi zuten eta herrira abiatu ziren. Oso pozik zeuden, beren ametsetako bat lortu zutelako, Europan egotea. Gaueko bederatiak ziren eta oso nekatuta zeudenez lauek izkina batean egin zuten lo, etxetik ekarri zuten manta pare batekin.

Hurrengo egunean, jaiki bezain laster; lan bila joan ziren, Kintxo eta Jana kalean eskatzen egon ziren bitartean. Kik-i zaborbiltzaile izateko eskaintza egin zioten eta Kik-ek bi aldiz pentsatu gabe lana hartu zuen. Muru-k bitartean, etxeak garbitzeko lana aukeratu zuen eskaini bezain pronto.

Kintxok eta Janak ez zuten diru asko lortu, baina eskolan apuntatzeko eta janari pixka bat erosteko izan zuten. Gau hartan, berriz ere, kalean lo egin behar izan zuten, baina beste poztasun batekin. Hurrengo goizean, gurasoak lanera joan egin ziren eta umeak eskolara. Arratsaldean Kik umeen bila joan zen, bakarrik goizez lan egiten zuelako eta Muru-k goizez eta arratsaldeko seiak arte. Gero, familia osoa elkartu zen eta "paperak" egitera joan ziren, Espainian legalki bizitzeko. Ez pentsatu erraza izan zenik, oso zaila baizik. Baina lau ordu pasa ondoren paper guztiak lortu zituzten. Hurrengo egunean berriz ere gurasoak lanera eta umeak eskolara. Janak lagun asko egin zituen, baina Kintxorentzat ez zen hain erraza izan lagunak egitea. Hasieran, berataz barre egiten zuten egunero eta irainak jasotzen zituen bere azalaren koloreagatik eta beti negarrez bukatzen zuen.

Baina egunak aurrera egin ahala lagunak egiten hasi zen. Diru pixka bat aurreztu zutenean, familiak pisu bat alokatu zuen gurasoen diruarekin eta egunero janaria izaten zuten.

Nahiz eta beraiek uste zutena baino gehiago kostata, ametsetako gauzak lortu zituzten eta azkenean familia osoa oso pozik bizi izan zen Kanaria Handia irlan.

# ANKATXO

## Ainhoa Ibero Gorriti

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Bazen behin dinosauro txiki eta berde bat. Ankatxo zuen izena eta beste dinosauro guztiak barre egiten zioten: beti ilargian zegoelako eta ez zelako ezertaz enteratzen, tuntuna zela eta ez zekiela ezer esaten zioten.

Ikastolako egun normal eta aspergarria zirudien egunean, azkenean bere bizitza osoa aldatu behar zuen gauza bat gertatu zitzaion.

Asteazkena zen eta Ankatxok ez zeukan ikastolara joateko gogorik, ez zituen dinosauro umeek egiten zizkieten barreak jasan nahi, baina amak ikastolara joatera derrigortu zuen.

Ankatxo iritsi bezain laster dinosauro ume guztiak bera inguratu eta farrezka hasi ziren. Ankatxok ez entzunarena egin eta bere bidea jarraitu zuen. Halere, klasea hasi zen eta egun honetan zelai batean korrika egin behar zuten. Bat-batean, ikastetxeko haur bat etorri zen eta ibiltzeko zailtasunak zituenez, dinosauro umeek barre egin zioten, baina hori ez zen guztia: Dinok, gelako gaiztoenak, harri gogor bat hartu eta bere indar eta punteria osoarekin hanketan jo eta mutikoa lurrera erori zen. Irakaslea ez zenez konturatu nor izan zen gelakoei galdetu zien eta guztiak errua Ankatxori bota zioten. Irakasleak sinistu eta Ankatxo aste baterako kanporatu zuen.

Ankatxo oso haserretuta baso barrura sartu zen belar artean patxadan egoteko eta belar bat jateko. Ankatxo oso entretenitua zegoen belar freskoak bilatzen. Bat-batean landare more politopolita aurkitu zuen sastraken artean; ez zuen inoiz horrelako bat ikusi eta dudarik gabe Ankatxok landare loreduna hartu eta ahora sartu zuen. Bat-batean landareak beste toki eta garai batera eraman zuela konturatu zuen. Lurretik altxatu bezain laster; jende guztiak harriturik argazkiak ateratzen zizkion eta pixka bat geroago ez ziren telebistako kazetariak falta. Hurrengo egunean munduko aldizkari, egunkari, irrati eta telebista saio guztietan atera zen. Ankatxo han, bere garaian jende guztiak gaizki begiratzen zuela eta han berriz denek miresten zutela konturatu zuen. Gizon esku zabal batek Ankatxori garai honetako gauza guztiak erakutsi eta azaldu zizkion; adibidez: telebista, ohea, aulkia eta abar: Baita ere bere festak eta ospakizunak azaldu zizkion. Ez pentsa Ankatxok ez zuela kasurik egiten, bai zera!! Bere bizitza osoan baino askoz kasu handiago egiten zien gizonak ematen zituen azalpenei. Oso gustura zebilen oraingo garaian; gainera, azken urtean, emakume batek ikastola berezi batera eraman zuen eta han Ankatxok asko ikasi zuen.

Oso bakarrrik sentitzen zen. Egun batean bere gurasoen oroitu zuen, amak prestatzen zuen hosto irabiatuaz eta aitak kontatzen zizkion istorio miresgarrietaz.

Horregatik Ankatxok bere garaira bueltatzea gustuko izango zuela pentsatu zuen. Pertsona guztiak esan zien berriz bere garaira bueltatuko zela eta ez zela inoiz gehiago hara itzuliko. Hori jakinda planeta guztia oso triste jarri zen. Ankatxo, hurrengo egunean, agertu zen basora itzuli zen eta han zegoen ia ukitu gabe landare miresgarri hura. Ankatxok landarea hartu eta bere hortz tartean bere zapore gozoa nabaritu zuen. Momentu horretan bere garaira bueltatu zen eta horko animalia guztiak Ankatxori zer gertatu zitzaion eta zer ikasi zuen galdetu zioten. Baina momentu hartan barre algara sorta bat entzun zen. Noski, horko biztanle guztiak Ankatxok ezer ez zekiela pentsatzen zutelako. Une hartan Ankatxok zekien guztia kontatzen hasi zen, eta herritar guztiak harrিতuta utzi zituen.

Hortik aurrera mutil guztiak bere inguruan jartzen dira gauero gure zaletasunak eta ospakizunak entzuteko.

## ZERGATIK EZ?

Markel Videgain Barberena

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

I° PREMIO: Educación Secundaria 2° ESO

Udazkena zen, egun euritsu eta luze haietako batean geunden nire lagunak eta ni, nire etxera joateko asmoz arratsaldeko zazpiak izan arren, sutondoan egoteko, noski. Hara iritsi ginenean aitona zegoen gaztainak erretzen sutondoaren inguruan, bere besaulkian eserita. Zorionez, edo zoritxarrez, gu ikusitakoan oso pozik jarri zen eta hitz egiteari eman zion. Guk ezin genion isiltzeko esan, ze, nork nahiago du zegoen eguraldiarekin sutondoan egon ordez kalean euria jasaten egotea? Honela hasi zen...

"Istorio hau nik 40 urte inguru nituenean gertatu zen: badakizunez, ni Orbaizetan jaioa naiz, eta hazia noski. Gu zazpi anaia-arreba ginen, haien artean karabinero zen bat. Karabineroak gaurko udaltzainak bezalakoak ziren. Han urterik txarrenak igaro nituen, guda garaia, hain zuzen. Gure bizimodua oso ezberdina zen; ez pentsa lehen "Caprabo" horietakoak zeudenik, ez... ezta pentsatu ere! Guk jan nahi bagenuen izerdiarekin ordaintzen genuen! Lehen baratzekin eta animaliekin elikatzen ginen baina guda zibila garaian funtsezko beste zenbait janari eta produktu faltan izaten hasi ginen eta orduan aukera bakarra kontrabandoa zen.

Kontrabandoa egiteko hau egiten genuen: guda hau zibila zenez, bakarrik Espainiari eragiten zion. Frantzia dena arrunt zihoan, hau da, janari eta produkturik faltan ez zegoen, eta Orbaizeta Frantziatik oso hurbil zegoenez hara joaten ginen, bizirik jarraitzeko nola ez, eta beharrezko genituen gauzak ekartzen genituen. Ia objektu guztiekin egiten zen: bazegoen pertsona bat Frantziara oinez joaten zena eta txirimindulaz bueltatzen zena, horrela hainbeste aldiz. Beste batek, alkandoraren barrukoan oihalak eta botoiak itsasten zituen. Eguneroko bizitzan oso beharrezkoak ziren gauzak ere ekartzen zituzten: gatza, olio, ozipina, azukrea...

Orain niri garai haietan gertatu zitzaidan pasadizo bat kontatuko dizuet. Urtarrileko egun hoztenetarikoa bat zen eta elurra mara-mara ari zen. Ni frantziar batekin ari nintzen trukean eta gau



betean gelditu ginen, Urkulu mendiaren azpian zegoen txabola batean hain zuzen. Isilka hurbildu nintzen txabolara eta leihotik begiratu nuenean ez zegoen frantziarra, ez, nire anaia karabineroa zegoen patruila egiten beste hankide batekin. Bera atera zen, baina ikusi nituen lehenengo sastraketara bota nintzen ni hark ez ikusteko asmoarekin. Behatzik mugituk gabe, arantza bat ukondoan sartzen eta beste bat hanka zirikatzen,

hor gelditu nintzen. Zoritxarrez anaia txisa egiteko gogoarekin atera zen txabolatik eta ni nengoen sastraketan egitea baino ez zitzaion bururatu. Badakizue zer gertatu zen gero, ez?... zuzen!! Goitik behera txisaz beterik utzi ninduen.

Azkenean handik alde egin zuten eta nire planaren txanda zen orain.

Galdetuko duzue zergatik ez nuen agurtu edo berarekin kafesnea hartu. Garai haietan dena ezberdina zen eta hobe ez jakin zer egingo zuten nirekin, baina, seguruenik, kartzelako lekua ez zidala inork kentzen.

Elurra erortzen jarraitzen zuen eta behin eta berriro leihotik begira nengoen nire laguna edo karabineroak etortzen ziren ikusten. Urrutian, gizon bat ikusten zen, pixkanaka-pixkanaka honantz

zetorrena. Lehengoak ea ote ziren begiratu nuen, baina poltsa handi bat sorbalda gainean zera-mala ikustean, negu horretan zure amonari eta niri bizitza salbatuko ziguna zela ohartu nintzen. Biak txabolaren barruan geunden tratuan aritzen, gurina, dilistak, intxaurrak... merkeagotzeko. Azkenean tratu on bat egin genuen eta biok etxera pozik bueltatu ginen, zenbait ordu ibili eta gero.

Barkatu, oraindik ez dizuet aipatu nire emaztea. Berak etxean ematen zuen eguna, baina, ez pentsa auzokoekin hizketan aritzen zela. Amona behiekin aritzen zen esnea ateratzeko eta arropa garbitzen herrikoek eginiko garbilekuan. Normalean baratzean aritzen zen, baina bakarrik denboraldia zenean. Horregatik eskatu gienizkion frantziarrari dilistak eta babarrunak.

Horrela ziren garai haiek eta horrela amaitu da nire istorioa."

Etxera itzuli nintzenean, jadanik hamarrak ziren eta afaltzeko eta ohera joateko ordua zen. Afaltzen, baina batez ere ohean nagoenean, aitonaren istorioa zela eta, buruari birak eta birak ematen ari nintzaion. Behin baino gehiagotan gustatuko litzaidake garai latz haietan bizi izatea. Sentsazio

hori, esnatzen zarenean eta elurra ikusita, poztu ordez ia negarrez hastea. Edozer emango nuke esnatzeagatik duela mende erdi Orbaizetan edo beste edozein herritan. Beste gauza oso garrantzitsu batetaz ohartu nintzen eta zera zen: ZEIN PIJOAK GAREN, EZ?! Gaur egun, gose zaudela: aita! Eman dirua Caprabora noa... edo: ama! Karpeta galdu dut eta erostera noa. Gaur egun dena eskua- ren ondoan dugu eta askok ez dute ezta mugitzen ere. Eskua sutan jartzen dut gure aitona-amona edo birramona bezala biziko bagina batek baino gehiagok buruan tiro egingo zuela!

PENTSA EZAZUE ERANTZUNA...

Benetako gertaeretan oinarrituta.



## BIZITZA ALDAKETA

Aritz Lasarte Cía

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

I° PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Bazen behin hiri handi bateko bazterreko auzo batean bizi zen mutil bat. Bere izena Ibai zen. Mutil honek 17 urte zituen, eta bere aitarekin bizi zen etxe zahar batetan. Ibai gutxitan joaten zen eskolara eta ez zuen lanik egiten ere. Bere aita kamiolaria zen eta gutxitan azaltzen zen etxean. Ibairen auzoa ez zen bizitzeko oso egokia. Hiri handitik baztertuta zegoen eta etxe txar batzurenekin osatuta zegoen. Leku horretan zegoen gauzarik penagarriena droga salerosketa zen. Jende guztia, helduak eta gazteak, momentuoro erretzen zebiltzan, beste ezer egin gabe. Ibaik ez zuen oso gustuko erretzea eta droga hartzea, baina hori erakutsi ziotenez, berak ere egiten zuen. Bertako gehienak erdi eroak zeudela ematen zuen, drogaren menpe.

Auzo hartatik polizia noizbehinka bakarrik igarotzen zen, eta batzuetan norbait berarekin eramatzen zuten, droga erabiltzeagatik gartzelaratzeko asmoz.

Ibairen ama hilda zegoen. Semeak 10 urte zituenean gertatu zen eta oso argi gelditu ez bazen ere, drogarengatik izan zela esan zuten.

Hilabetean behin bere aitak dirua bidaltzen zion eta semeak janaria erosteko erabiltzen zuen baina baita batzuetan droga erosteko ere. Ibairen kasua ez zen auzokoena bezalakoa: berak ez zuen asko atsegin baina denek erretzen zutenez berak ere egiten zuen.

Droga auzora ekartzen zuena Tomas izeneko gizon bat zen. Inork ez zekien nondik zetorren ezta nondik ateratzen zuen droga baina diru asko irabazten zuela bistan zegoen. Astelehenero etortzen zen, gaueko hamarrak inguruan eta zigarro bat ahoan zuela. Eratzun, lepoko, erloju eta apaingarri ugari erabiltzen zituen eta markako arropa garestia ere. Droga garesti saltzen zuen baina denek nahi zutenez asko saltzen zuen. Dena oso azkar saltzen zuen eta polizia iristeko denborarik eman gabe kotxea hartu (BMW garesti bat) eta ihes egiten zuen ziztu bizian. Erosleak auzoko gazteak ziren, lbairen ezagunak. Gero haiek ere saldu egiten zuten, auzoko jendeari edota inguruko auzo edo herrietan. Ibai normalean ez zen salerosketa horietan sartzen.

Ibaik moto bat zuen, eta bere lagunekin bueltak ematera joaten zen. Normalean kotxe gutxi pasatzen ziren autobide batera joaten ziren eta bertan nahi zutena egiten zuten: lasterketak, saltoak eta bestelako gauzak. Ondoren auzora itzuli eta txoko batetan jartzen ziren, alkohola edateko edota porro eta zigarroak erretzeko. Ibaik normalean ez zuen asko edaten baina bere lagunek edateko esaten zioten eta horrela egiten zuen; beraz, ez ziren oso lagunak ere, ia edatera behartzen zuten eta.

Goiz batetan lbairen ondoan bizi zen gizonak gaztearen etxera deitu zuen:

- Kaixo, Ibai, hitz egin dezaket zurekin? -esan zuen.

- Bai, pasa barrura -erantzun zuen.

- Gaur hirira joan behar dut eresketa eta lan batzuk egitera, horregatik nire semeak zaindu ahal dituzun galdetzeraz etorri naiz.

- Niri berdín zait. Noiz itzuliko zara?

- Eguerdirako hemen izango naiz -esan zuen gizonak- A! Beste gauza bat, esan didate futboleko jokatu nahi dutela, beraz, baloia hartuta joan zaitezke jolastera.

- Bai, ideia ona da.

Gizona auzoan erretzen eta edaten ez zuen bakarra zen eta Ibaik konfiantza zuen berarengan. Arropa jantzi ondoren Ibai aldameneko etxera bideratu zen eta iritsi zenean atea jo zuen:

- Nor da? -esan zuen Julenek (semeetako batek).

- Ni naiz, Ibai -erantzun zuen.

- Oraintxe aterako gara.

Bi minutu beranduago bi mutikoak atera ziren eta lbairekin futbol zelaira joan ziren. Mutikoen izenak Xabier eta Julen ziren. Xabierrek 13 urte zituen, Julenek, berriz, 11. Futboleko jokatzeko gogo biziz zeuden, argi zegoen kirola maite zutela. Ibaik berriz ez zuen inoiz futboleko jokatu. Hasteko, futbol zelaia orain zela bi urte eskas ipini zuten eta ordurako oraingo lagunekin ibiltzen zen. Bere lagun horiek bakarrik motoak eta abiadura gogoko zuten edo droga hartu eta edatea, beraz, ez zuen futboleko jolasteko aukera handia izan. Horregatik esperientzia berria izango zen lbairerentzat.

Zelaira iritsi bezain laster bi anaiak jolasten hasi ziren, paseak emanaz eta jaurtiketak eginez. Ibaik tiro bat botatzeko eskatu zien eta baita egin ere. Area kanpotik bota zuen eta gol izugarri bat sartu zion Xabierrri. Bere bizitzan lehenengo aldiz bere buruaz oso pozik sentitu zen Ibai.

Horrela, jolasten igaro zuten goiz osoa eta oso-oso gustura egon ziren hiruak elkarrekin. Ibaik oso gustuko izan zuen kirol hura eta nahiko ona zela ere ikusi zuen.

Arratsalde hartan bere lagunek motoa hartzeko esan zioten baina Ibaik ezetz esan zien eta bere bi lagun berriekin futbolera jokatzera joan zen. Berriro ere oso ongi pasatu zuenez egunero jokatuko zuela erabaki zuen.

Hilabete bat igaro ondoren futboleko asko hobetu zuen Ibaik, baita bere osasunean ere. Droga ia bizitza osoan hartzen egon zenez oraindik ez zegoen gutxi osasuntsu baina askoz hobeto sentitzen zen eta oso alai zegoen alkoholik edan gabe eta drogarik probatu gabe.

Egunak eta gauak pasatu ziren eta berri pozgarri bat jaso zuen Ibaik: bere aita bi asterako zeto-

rren bisitan.

Etorri zenean Ibaik besarkarda bat eman zion eta droga utzi eta futbolean jolasten hasi zela kon-tatu zion. Aitak futbola gustuko zuen, eta bere semearekin jolastera joan zen. Izugarri ongi pasatu zuten eta ondoren bazkaltzera etxera joan ziren. Bazkaltzen bukatu zutenean ondoan bizi zen gi-zonak atera deitu zuen eta Ibairen aitak barrura sartzeko esan zion. Gizonak esan zuen:

- Kaixo. Berri on bat dakart, lagunak!

- Zein da? -galdetu zuten aho batez aita-semeek.

- Europako kopa irabazi duen futbol taldea dator auzora futbol partidu bat jokatzera!

- Zeeer? -esan zuen Ibaik- ezin dut sinetsi! Eta zergatik etorri behar dira?

- Ongintzako egintza bat egitera datozte, droga asko dagoen auzo bat denez... Begira, etorri ni-re etxera -esan zuen gizonak.

Hiruak korrika atera ziren eta beste etxean sartu ziren.

- Begira telebistan -esan zuen gizonak.

"Europako txapelduna den futbol taldea droga dagoen auzo txiki batera joango da, ongintzako egintza bat egitera. Taldeak auzokoen aurka jokatu du partidutxo bat eta sartzen den gol ba-koitzarengatik dirua emango zaie auzokoei drogaren aurka lan egiteko". -esan zuen telebistako aurkezleak.

- Ze ongi!!!! -esan zuen Ibaik.

Handik hiru egunetara autobus handi bat azaldu zen auzoan, futbol taldearena zen! Ibaik eta he-rriko beste hamar haur galtza motzetan futbol zelaian zeuden, partidua hasteko zain. Taldea jaitsi zenean, han zeuden guztiak txaloka hasi ziren. Orduan taldeko presidentek mikrofonoa hartu, eta hitz egiten hasi zen. Diruaz aparte auzoko taldearentzako baloiak, ekipazioak eta beste opari ba-tzuk ekarri zituela esan zuen eta auzokoak berriro txaloka hasi ziren.

Handik gutxira partidua hasi zen eta, noski, profesionalak hasi ziren dominatzen. Dena dela ez zuten zekiten gutzia eman. Golak bata bestearen atzetik sartu zituzten eta 5-0 aurretik jarri ziren. Hau ez zen berri txar bat, gol bakoitzarengatik diru kopuru bat jasoko baitzuten. Auzoko taldea etsita zegoen, Ibaik izan ezik. Hau saiatzeko eta saiatzeko ari zen eta amaizteko minutu bat falta zela sekulako gola sartu zuen. Bi taldeak eta partidua ikusten ari zirenak txaloka hasi ziren eta "Ibaik! Ibaik!" esaten. Gaztea pozik txoratzen zebilen eta handik gutxira partidua amaitu zen. Jokalariei firmak es-katu ondoren bere etxerantz bideratu zen, arropa aldatzera joateko. Halako batean, ordea, nor-baitek atzetik deitu zion. Bira eman eta beste taldeko entrenatzailea eta presidentea ikusi zituen:

- Kaixo, Ibaik, zurekin eta zure aitarekin hitz egin dezakegu momentu batean? -esan zuen entre-natzaileak.

- Bai, noski, jarraitu niri -erantzun Ibaik.

Bere etxera iritsi ziren eta barrura sartu ziren. Aita mahaian eserita zegoen, egunkaria irakur-tzen:

- Kaixo, aita -esan zuen Ibaik- Ibaik naiz.

Orduan norekin zetorren azaldu zion aitari. Mahai inguruan eseri ziren laiak eta presidentea hitz egiten hasi zen:

- Kaixo gizon. Zure semea oso ona dela ikusi dugu eta nola jokatzen duen gustuko izan dugu.

- Eskerrik asko -esan zuen aitak.

- Horregatik gure taldean sartu nahi dugula esatera etorri gara -esan zuen entrenatzaileak.

- Bai? Ze ongi! Eskerrik asko! -esan zuen Ibaik.

Egun hori bere bizitzako hoberena izan zela pentsatu zuen Ibaik. Bere aita ere pozik eta alai ze-goen, eta zorte ona opa zion. Ibaik maletak prestatzen hasi zen, eta entrenamenduak hasteko go-go biziz zegoen.

Hurrengo egunean bertan hiri haundira joan zen, entrenatzera. Entrenamendua bukatu ondo-



ren kontratua sinatzera joan zen. Nahiko diru kobratuko zuen eta oso pozik zegoen.

Handik hilabete batera denboraldia hasi zen eta lehenengo partiduan bi gol sartu zituen Ibaik. Zaleek ziotenez bera zen taldeko onena.

Denboraldi hartan txapelketa eta Europako Kopa irabazi zituen. Gainera irabazitako diruarekin berarentzat eta bere aitarentzat etxe berri bat erosi zuen eta auzoan bere lehengo etxe ondoan bizi zen gizonari dirua eman eta auzoko droga desagertzeko dirua erabili zuen. Futbol talde berri bat egin eta zelaia berritu zuen. Gutxinaka auzoko egoera hobetuz joan zen, lbairen eta beste batzuen laguntzaz.

Beraz, baztertutako auzo batetan bizi zen mutil batek, drogaren munduan sartuta egotera behartutako gazte batek, kirolari esker bere bizitza berregitea lortu zuen, bere bizitza aldatu zuelako.

## TRIOFIRO


**Miren Josune González Etxenagusia**

**I. SARIA:** Bigarren Hezkuntza 2. DBH

**I° PREMIO:** Educación Secundaria 2° ESO

- Piii... Piii... Piii... Bai? -erantzun zuen emakume zahar baten ahotsak.
- Egun on, Triofigo gozotegia? -galdetu zuen ahots gazte batek.
- Bai, nor da?
- A... Bai! Barkatu, Saioa Ormendia nauzu, eta egunkarian jarritako iragarkiengatik deitzen dut -esan zuen gazteak bere akatsa konpondu nahian.
- Ongi, ez zaigu inor gehiago aurkeztu lan hau egiteko..., beraz zeurea duzu, zorionak!
- Baina...
- Bai, bai, ongi entzun duzu, bihar...
- Baina nik ez...
- Ez didazu eskertu beharrik neska, barkatu, neska zara ez? Bai nola ez. Begira, niotsuenez, bihar hasiko zara, goizeko...
- Baina nik ez dut baietarik esan eta gainera...
- Ez eten -esan zion berriro emakumeak gogaiturik-, bihar seietan hasiko zara, iragarkian helbidea jartzen du, ez? Bai. Ala, bihararte.
- Bai, bihararte. -Saioak etsiturik.

Dei hori egin ondorengo egunean, goizeko bostetan, Saioa Donostiako kaleetatik zebilen noraezean. "Banekien nik ez nuela lan hau onartu behar, seguruena mukizu baten txantxaren bat izango zen", esaten zion behin eta berriz Saioak bere buruari. Hala ere, badaezpada, papera atara zuen bere poltsikotik azkeneko aldirik begiratzeko. "Noiz moztuko ote dut ile luze hau... a bai, dirua lortzen dudanean" esan zion bere buruari, ilea aurpegitik kendu eta bere begi berdeak paperean jarri zituen:



Burutapen ezkorrak etorri zitzaizkion orduan burura "gozodenda bat pisu batean? Bai gauza arraroa, ez da jende askorik joango...". Hala ere bilatzen jarraitzea erabaki zuen, dirua behar baitzuen, eta azkar:

"Sagarrondo kalea, matxinsalto... kalea! Bai hau da, orain zenbakia, 1, 3, 9... 13! Zein zen pisua? A bai. Espero dut hau guztia egia izatea..." eta horrela, bere buruarekin hizketan aurkitu zuen bilabilena. Txirrina jo zuen:

- Triiiiiiiiiiii...
- Izena? -galdetu zuen ahots gogor batek.
- Saioa Ormendia.
- Aurrera -agindu zion ahotsak.

Saioak atariko atea ireki zuen. Etxebizitza benetan zaharra zen hura. Berriro burutapen ezkor horiek etorri ziren neskaren burura: "zein jende mota bilduko du horrelako etxebizitza batek? Jendea biltzen badu... Agian hoberena etorri naizen tokitik ateratzea izango da, baina jadanik badakite sartu naizela...". Saioak aurrera egin zuen, eskaileretatik igo zen igogailu zaharrek beldurra ematen baitzioten, baina ez zuen argiaren botoia aurkitu eta kanpoko farolek igortzen zuten argiarekin igo behar izan zuen. Eskaileretatik behera erortzeko zorian egon zen pare bat alditan, baina azkenean hirugarren pisura iritsi zen. Zenbakia bilatu eta aurkitzean txirrina jo zuen. Saioak norbaitek ateko behatxuloa nola igotzen zuen entzun zuen. Gero gizon garai eta indartsu batek sartzeko esan zion. "Atezaina al daukate?" pentsatu zuen "horrela bada, dirua izango dute; orduan, zergatik bizi dira etxe zahar honetan?". Etxeko sarrera handia zen oso. Alde batean armairu txiki bat zegoen eta bestean ispilu bat. Atezainak beste ate batera gidatu zuen neska, gero atea ireki zuen.

- Aaaaaaaaaaaaaaaaaa!!!! -oihukatu zuen Saioak izugarritzko argiak bat-batean begiak itsutu zitakionean.

Atearen atzeko gelak ez zuen zerikusirik aurrekoarekin, "ezinezkoa da" pentsatu zuen Saioak, "argiak itsutu egin nau, ikusten dudana ezin da egia izan". Ondoren begiak igurtzi zituen, baina bere aurreko irudia ez zen aldatzen, "erotu egin naiz" esan zion bere buruari "ez, lasai Saioa, inor ezin da erotu berehalakoan!". Azkenean bere burua lasaitzea lortu zuen eta kuriositatez begiratu zion aurrean zeukanari.

Gela handi bat zen, denda baten itxurakoa, apalategi ugari zituen gozokiz eta beste edozein produktuz beterik, atzealdean ate bat zegoen eta bere gainean "sukaldea" zihoen paper bat, ordaintzeko makina mahai borobil baten gainean zegoen eta honen atzean emakume zahar bat. Horra arte normala, ez? Baina Saioari erotuta zegoela pentsarazi ziona zera izan zen: gela hura, jende gainezka zegoela eta goizeko seiak besterik ez zirela!!! Saioak mahai borobilaren atzean zegoen emakumearengana joan behar zuela suposatu zuen. Ez zitzaion erraza suertatu berarengana iristea jendeak oztopatzen baizion. Irtsi zenean, ezer esateko denbora eman aurretik emakumeak esan zion:

- Egun on, Ormendia andereñoa.
- Egun on, eee...?
- Asun dei iezadazu mesedez. Esan bezala gaur hasiko zara. Segi iezadazu.
- Bai, baina...
- Ba al dakizu sukaldean aritzen?
- Bai, baina nik hau gozotegi bat zela uste nuen.
- Eta nork esan du ez denik?

- Inork, baina nik uste nuen gozotegi batean ez zegoela sukaldean aritzeko beharrik, dena fabriketatik ekartzen dutelako.

- Usteak erdia ustel, gainera ikusiko zenuen hau ez dela gozotegi arrunt bat.

- Bai, baina orduan zer da?
- Galderak gero, orain ez dago astirik, hasi lanean.
- Zer egin behar dut?
- Ez didazu entzun? Ez zait gustatzen gauzak behin baino gehiagotan errepikatzea. Eta ez dut uste zuri ni haserraraztea komeni zaizunik, batez ere diru beharrean baldin bazaude. Mahaian duzu jakin beharreko guztia. Agur.
- A... gur.


"Bai jenio txarra daukala andreak" pentsatu zuen Saioak. Bera konturatu gabe, emakumeak jendez betetako gelatik atera eta sukalde arrunt txiki batera eraman zuen.

Sukaldearen alde batean zegoen mahaira hurbildu zen. Honen gainean paper bat zegoen, irakurri egin zuen. Bisigua egiteko osagaiak zeuden idatziak. "Bisigua? Bai gauza arraroa" pentsatu zuen Saioak.

Osagaiak bilatzen hasi zen, baina ez zituen inon aurkitu. Asuni galdetzea onena zela erabaki zuen, baina egitera zihoanean berak esandakoaz oroitu zen, "galderak gero". Orduan atezainari galdetzea bururatu zitzaion, agian berak jakingo zuen. Sarrerarako atea bilatu zuen. Aurkitu zuenean ireki eta han aurkitu zuen atezaina, itxaroten ari balitzaio bezala. Segituan galdetu beharrekoa galdetu zion:

- Barkatu, baina ba al dakizu non dauden jakiak eta osagaiak sukaldean?
- Bai, biltegian -erantzun zion honek irribarrez.
- Non dago biltegia?
- Sukaldean.
- Seguru? Begira nik sukalde guztia...
- Ongi begiratu.

Etsita, Saioa berriro sukaldera bueltatu zen eta atea ireki bezain laster... han zegoen, bere muturraren aurre-aurrean, biltegia idatzita zeukan atea. Azkar sartu eta behar zituen osagaiak hartu zituen gela hura bat-batean desagertuko zen beldurrez. Azkenean bisigua prestatu zuen, baina ez zekien ondo zertarako. Ez zekien zer egin behar zuen orain, baina badaezpada ere papera berriro irakurri zuen zerbaite irakurri gabe utziko baizuen, agian... Ezin zuen sinetsi, orain ez zuen bisiguari buruzko ezer esaten, hau jartzen zuen:



"Gauza arraroak dira benetan gozodenda honetan gertatzen direnak" esan zion bere buruari Saioak sukaldetik atera eta mahai borobilerantz zuzentzen zen bitartean. Baina iritsi zenean makina ez zegoen bertan. "Beste txantxa bat" pentsatu zuen neskak "ba oraingoan badakit zer egin".

Saioa mahai borobilerara igo zen dendan zegoen jendearen harridurarako. Hortik denda osoa ikus zezakeen eta aise aurkitu zuen kobratzeko makina apal baten gainean. Zegoen tokiraino joan eta hartu egin zuen, baina horretarako makina erostea pentsatzen zuen erosle bati kendu behar izan zion lehenago. Gero mahai biribilerara bueltatu zen eta bertan jarri zuen aparatua. Honen kablea hartu eta entxufe bat bilatzen hasi zen. Ez zegoen entxuferik! "Baina haizagailuek fun-

tzionatzen dute!" pentsatu zuen. Horietako baten kablea jarraitu zuen, baina kablea paretan sartzan zen eta zuloa hain zen txikia non entxufea ez baizen sartzen bertatik eta beste haizagailuekin beste horrenbeste gertatu zitzaion. Baina ez zuen etsi, berak eragiketak eskuz ere egin ahal zituen. Denbora pasata, bere lehenengo bezeroa iritsi zen:

- Egun on andrea -esan zion Saioak.
- Bai, egun on. Liburu hau eramango dut.
- Irakurtzea gustatzen zaizu, ez?
- Egia esan, ez.
- Eta orduan, zergatik erosten duzu?
- Denda honen jabeak erosteko esan didalako.
- Bai ulertzen dut, "kobraiozu jendeari nahi duena bakarrik"...
- Barkatu?
- Ez, ezer ez, eta zer egiteko esan dizu nik liburu hau kobratzen ez badizut?
- Berarengana joateko.
- Eta non dago bera?
- Sukaldean.
- Oraintxe nator; itxoin iezadazu minutu batez, mesedez.

Saioa sukaldeko aterantz abiatu zuen, eta bertan zegoenean esan zion andreari:

- Barkatu, baina ezin dizut liburu hori kobratu.

Bat-batean andrea korrika hasi zen sukalderantz, baina Saioa bertan zegoen jadanik. Sartu eta atea giltzaz itxi zuen. Barrura begiratu zuen eta han zegoen Asun, aulki batean eserita, bere be-taurreko handiak jantzirik eta ile txuria motots luze batean bildurik. Altxatu egin zen eta Saioari eskua emanez esan zion:

- Zorionak neska, postua zeurea da.
- Baina nik uste nuen postua nirea zela jadanik -eta harrituta geratu zen emakumeak eteten ez zuela ikusita.

- Ez zenuen usteko edonori emango niola nire denda?
- Baina ez duzu uste probak gehiegizkoak egin direla?
- Gehiegizkoak? Mesedez, zailak iruditu al zaizkizu?
- Ez.
- Eskerrak, zeren eta hori ez da ezer hemen gertatzen diren gauzekin konparaturik.
- Eta zer gertatzen da hemen?
- Ez duzu usteko nik esango dizudanik? Zuk zeuk ikusiko duzu.
- Zer esan nahi zenuen "ezin diot edonori eman denda" esatearekin?
- Entzuten duzuna.
- Baina denda zeurea da.
- Zuk hau sinatzen duzun arte -esan zion Asunek paper bat erakutsiz.
- Baina zer egingo duzu zuk? Eta gainera nik ez dakit ezer negozio honi buruz...
- Tsist... ez izan tuntuna neska. Zuk azkar ikasten duzu, oso azkarra zara, orain arte nire probak gainditu dituen pertsona bakarra zara. Eta zer egingo duzanik? Begiraidazu, atso zahar bat naiz, erretiroa behar dut jadanik, gainera ez zait dirurik falta, denda honek asko ematen baitu. Irla batera joango naiz bizitzera ea ni bezalako mutilzahar bat ezagutzen duzan, nork daki? Inoiz ez da berandu. Onartzen duzu?

- ...

Isilunezko segundo batzuk egon ziren, Saioak pentsatzeko erabili zituenak:

- Bai- esan zuen azkenik.
- Ongi, hemen sinatu... horrela. Orain, zoaz! Robertok, atezainak, -gehitu zuen, Saioak jarritako

aurpegia ikusi zuenean- zure etxe berria erakutsiko dizu.

Atezaina atetik agertu zen eta neska berarekin joan zen, baina atetik alde egin aurretik emakumeari begiratu zion zerbait esateko, baina honek joateko esan zion eskuaz keinu bat eginez.

Robertok dena erakutsi zionean Saioa sukaldera bueltatu zen emakumearekin hitz egiteko nahiaz, baina sukaldean ez zegoen inor. Orduan, Asun minutu batzuk lehenago eserita egon zen aulkian eseri zen bera eta aurrean, paretaren kontra, argazki bat zegoela ikusi zuen. Argazkian emakume gazte bat, gizon garai eta indartsu bat eta bi mutiko zeuden. Saioak nortzuk ote ziren galdetu zion bere buruari eta momentu batez, aulkian lo hartu baino lehenago, argazkiko emakumea eta gizona Asun eta Roberto iruditu zitzaizkion.

## LORENTZO KOTXEA

**Unai Mangado Pérez**

**2. SARIA:** Bigarren Hezkuntza 2. DBH

**2º PREMIO:** Educación Secundaria 2º ESO

Herri txiki batean bizi da mutil jatorra eta alaia, oso azkarra da. Bere etxea trastez beteta dago, beti gauza berriak sortaraztea gustatzen zaio. David deitzen da eta beti prest dago edozein gauza birziklatzeko.

Arratsalde distiratsu batean, eguzkiaren azpian oso lasai eserita zegoenean iruditu zitzaion kotxe zaharra egitea. Izena asmatzea bururatu zitzaion lehenengo eta bururatu zitzaion Lorentzo izena jartzea kotxeari. Asko gustatu zitzaion izena eta barre algara egin ondoren pozik jarri zen eta berehala lanean hasi zen.

Davidek orgatila zahar batzuen gurpilak hartu eta Lorentzoren gurpilak bihurtu zituen. Zabor-tegi batean utzita zegoen gurpil bati kendu zizkion bere bi ardatzak eta Lorentzon ipini zituen. Bere etxean zeuden xafla batzuk karrozerian erantsi zituen.

Esertzeko lekua eta bolantea traktore zahar batetik atera zituen. Gainean eguzki-plaka jarri zion. Lau kotxeren bateriak ipini zizkion. Aldaketa martxak bi bakarrik jarri zizkion, bat atzera eta bestea aurrera. David aho bete hortz geratu zen abiadura berdina lortu zuelako bai atzera eta bai aurrera.

Oso pozik geratu zitzaion Lorentzo, eta erabaki zuen aurkeztea Lorentzo Kataluniako lehiaketa batean.

Lehiaketa hartan lehiakide asko aurkeztu ziren. Han zeuden asmakizun eta tresnak zoragarriak, ikaragarriak, politak, ederrak, sinistu ezinak ziren. Sari asko banatu zituzten eta Davidek sorpresa haundi bat eraman zuen Lorentzo ikusi zuenean hirugarren postuan.

Saria hartu eta gero Frantziako enpresa haundi batek eskaintza bat egin zion Davidi. Eskatu zioten horrelako 10 Lorentzo ekoiztea diruaren truke. Davidek ez zuen onartu bere asmatzaila zelako eta ez ekoizlea.

Kataluniatik bere herrira itzuli zen Lorentzo. Daviden etxearen aurrean geratu zen. Lorentzo egun osoan kalean egoten zen; hori dela eta auzokide guztien laguna egin zen. Jendeak alaitasunez auzokide bat bezala onartu zuen.

David eskuzabala denez nahi duenari erabiltzen uzten dio. Herria oso txikia da eta festetan ez da joaten jostagarriarik. Lorentzo dagoen bitartean jaiak alaiagoak izanen dira. Lorentzo izan da festetan garrantzitsuen.

## HERIO

Aitor Ariceta López

2. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

2º PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

Non zegoen? Ez zekien. Zein zen? Ezta ere. Atsoak ez zuen ezer gogoratzen. Pentsatu gabe ibiltzen hasi zen. Xirimiria bere hezurretan nabaritzen zuen, lainoa, ordea, bere begietan.

Altxa zen. Etxe baten balkoian zegoen, egongela zikin batean. Mahaia botata, telebista guztiz txikituta... Handik lehenbailehen atera behar zuen, ez baitzuen leku hura jasaten. Sukaldetik igarotzen ari zenean tximiniako azken hausterreak itzaltzen ari ziren. Gezurra zirudien, "amnesikoa" harrezkero. Alzheimer-a ezinezkoa, oraindik bere garunak lana zuen luzerako -pentsatu zuen atsoak.

Handik logela batera joan zen. Bi panpin handi zeuden ohean etzanda. Ez zuen ulertzen zergatik zuten beldur aurpegia, oso panpina politak ziren eta. Handik atera bezain laster, ondoko gelan beste panpin bat aurkitu zuen. Horrek, ordea, ez zuen beldur aurpegirik. Hala eta guztiz ere, bere sudur ondoan malko bat zerion. Malko hura ez zen ur-tanta normala. Kontu handiarekin begiratu eta gero, bere barruan itzal batzuen mugimenduak antzeman zituen.

Orduak pasa ahala atsoak irudi berriak ikusten zituen. Azkenean ikusitako gauza guztien erlazioa aurkitu egin zuen. Panpinak ez ziren panpinak, panpina horiek mugitzen ziren, bera bezala. Ez ziren panpinak, baina orduan, zer ziren gauza horiek? Eta bera, zer zen? Egundoko jakin-mina zuen eta jakin-min hura ase behar zuen, noski. Horretarako malko bitxi hori begiratzen segitu zuen.

Baina, malkoa berriro begiraterakoan, aitaren batean dena ulertu zuen. Panpinak ez ziren berearengatik mugitzen, beldur aurpegi horiek berak sortuak ziren, hau da, dena geldirik zegoen berearengatik. Guztiz izututa, atsoa etxe horretatik korrika atera zen. Baina etxetik atera zenean kalea panpinez gainezka zegoen. Are gehiago, bere erruz denak horrela zeuden. Honek zorabiatu egin zuen eta, pauso batzuk eman eta gero, konortea galdu zuen.

Betazalak ireki zituen. Zerua garbi-garbi zegoen eta begiak itxi behar izan zituen eguzkiaren izpiengatik. Salto batez zutik jarri zen. Bere harridurarako ez zegoen batere nekatuta. Arraioa! Ezagutzen ez zuen leku batean zegoen. Baina, panpinen arrastorik ere ez. Orduan dena gogoratu zuen: bera ez zen edozer, bera Herio zen.

Egunak pasa egin ziren eta Herio gero eta gaizkiago sentitzen zen. Egunero gero eta panpina gehiago ikusten zituen. Honetaz gain, esnatu bezain laster konturatzen zen aurreko egunean oheratzen zen lekuan ordez, beste desberdin batean altxatzen zela. Ezin zuen tutik ere ulertu. Beno bai, ulertzen zuen gauza bakarra bere inguruan bizirik zegoen guztia akabatzen zuela. Gainera, nahiz eta gelditu nahi ez, leku diferente batean esnatzen zen atsoa egunero. Hilabeteak pasa eta gero, ezjakintasunaren ondorioz negarrez hasi zen eta ez zen gelditu nekatu arte.

Orduan, guztiz larrituta zegoela, bat-batean ahots bat entzun zuen: "Zeure argia aurkitu, zeure argia aurkitu", eta atsoak galdetu zion: "Zergatik aurkitu beharko nuke nire argia batere argitasunik ez badut?". Eta ahotsak erantzun zion: "Argia aurkitu ezean zer zaren ez duzu inoiz jakingo". "Nik badakit zer naizen, Herio naiz" erantzun besteak. Baina ahotsak esan zion "Zu ez zara Herio, zu ez zara Herio". Eta ahotsa joan egin zen, berriro ez bueltatzeko.

Atsoa are galduago zegoen. Ez zuen ezer ulertzen. Herio ez zela? Orduan zer demontre zen? Zorutzen hasten ari zen ahotsei kasu egiteagatik, pentsatu zuen bere barnerako. Baina benetako bazen? Eta egia hutsa ez bazioen? Hortik, nola aurkitu argi madarikatu hori? Orduan konturatu egin zen, baliteke egunez ezin ikustea eta, ordea, bera lo egiten ari zen bitartean ikusi ahal izatea. Baina ametsetan zegoen bitartean bilatu behar zuen?

Bueltak eta bueltak eman eta gero pentsatu egin zuen, "Noski, nola ez naiz lehenago kontura-

tu? Gizakiek argi hori ikusi behar izan dute noizbait!". Horrela bueltaka hasi zen atsoa mundu osotik edozein argiren aztamaren bila.

Mundu osoari buelta eman eta gero, eta denbora luzea pasa eta gero, atsoa liburutegietara informazioaren bila abiatu zen. Liburu asko irakurri eta gero, ondorio pare bat atera egin zituen. Lehenengoa, jende guztiak Herio gorroto zuela jaiotzen zen momentutik; eta, antza zenez, inork ere ez zuela ikusi argi bitxi hori.

Baino atsoak ez zuen amore eman, areago oraindik, ez zion batere axola jendea hiltzea, denbora ezak gauza horietan pentsatzea ezintzen baitzion. Irakurtzen eta irakurtzen segitu zuen.

Azkenean, urteak eta urteak pasa eta gero, itxaropena ia guztiz galdurik zuenean, atseden bat hartu egin zuen, eta izugarrizko ispilu batera begiratzerakoan, leinuruak, izpiak bere gorputz barruan sartu ziren eta orduan ikusi egin zuen: Argia, Herio, atsoa. Orduan konturatu egin zen, argia bere izatearen parte zen. Bi zatiz osaturik zegoen: Herio egunez eta Bizia gauez. Baina ulertzen ari zen mementoan buruak eztanda egin zion. Eta orduan guztiz txoratu egin zen.

Horrezkero atsoa kontrolik gabe mugitzen da mundu osotik lokartzen den arte. Orduan, atsoa argi bihurtzen da, atso bezala berriro esnatu arte. Baina atsoak ez dakiena munduko sekreturik sekretuena da. Pasatzen den lekuetatik, mugitzen den bitartean, mota guztietako izaki bizidunak jaiotzen eta hiltzen dira. Horrela, Herio eta Bizia jakin gabe beraien aurkako norgehiagoka bukaezinean egon dira, daude eta egongo dira. Haientzat denbora ez da benetan esistitzen, mundua bukaezina da. Bizia eta Herio atso batean eta barruan duen argian bihurtuta. Azken finean norgehiagoka ez du inork irabaziko bukaerarik ez badu.

Handik kilometro askotara atso-etxe baten balkoian atso zahar bat erdi lotan zegoen. Eta bat-batean esnatu zen. Non zegoen? Ez zekien. Zein zen? Ezta ere. Atsoak ez zuen ezer gogoratzen. Pentsatu gabe ibiltzen hasi zen. Xirimiria bere hezurretan nabaritzen zuen, lainoa, ordea, bere begietan...

## IRATXO MALTZURRAK, EZ DIRA BETI MALTZURRAK

**Janire Perales Ullibarri**

**2. SARIA:** Bigarren Hezkuntza 2. DBH

**2º PREMIO:** Educación Secundaria 2º ESO

Orain dela urte batzuk izaki arraro bat agertu zen nire etxe aurrean. Ni harrিতa geratu nintzen. Izaki hura ez zen oso altua, berrogei bat zentimetro neurtuko zituen. Oso dotore jantzita zihoan, praka urdinak eta jaka urdina zeramatzan soinean. Belarri zorrotzak zituen. Iratxo bat zen eta Martin zuen izena.

Bere bizilekua Gorbeian zegoen, baina handik bota egin zuten eta bizileku bila nire etxe aurrean bukatu zuen. Ni mendi magalean bizi nintzen. Nire etxea ez zen oso handia, bi solairu zituen arren. Beheko solairuan sukaldea, egongela, jantokia eta komun txiki bat zeuden. Goiko solairuan, berriz, hiru logela eta komun bat zeuden. Kanpoaldean lorategi eder bat zegoen, lorez beteta eta baita baratze txiki bat ere. Etxearen kontra besaulki zahar bat zegoen, etxearen aurrean.

Bere etxetik bota zuten, arazo larriak sortu baitzituen oso maltzurra zelako, baina nik hori ez nekien.

Berandu zenez eta hotza egiten zuenez, gau hartan etxean geratzea utzi nion, baino hurrengo goizean hasi ziren arazoak. Goizeko zortzietan jaiki nintzen egunero bezala, eta etxea hankaz

gora aurkitu nuen. Sukaldera jaitsi nintzenean, gosaria mahai gainean zegoen, baina iratxoa ez zen inondik ere ageri. Azkenean lorategian aurkitu nuen, etxe bat egiten ari zen eta hauxe esan nion:

- Ezin zara nire etxeko lorategian bizitzen gelditu, zuk iratxoekin bizi behar duzu eta hemen ez daude iratxoak.

- Baina ezin naiz haiekin itzuli, ez didate Gorbeian bizitzen utziko eta berriz handik botako nauten -erantzun zidan oso triste.

- Etxea biltzen laguntzen badidazu, gero nik zuri etxera itzultzten lagunduko dizut -proposatu nion.

- Ondo da, lagunduko dizut -erantzun zidan berak.

Etxea biltzen lagundu zidanez, nik beharko genituen gauzak motxila batean sartu nituen. Hau sartu nuen: linterna, janaria, lo-zakuak, ura, eskularruak, txanoa, eguzkitako krema, berokia, zira,... Txandal bat jantzi nuen eta mendiko botak jarri nituen.

Bazkaldu ondoren, abiatzeko prest geuden. Arratsaldeko hirurak izango ziren Martin eta biok abiatu ginenean. Bi egun beranduago iratxoen kanpalekuan geunden eta erregearekin hitz egitera joan ginen. Erregea harrizko gaztelu batean bizi zen. Hauxe ez zen oso altua, metro bat eta hogeitazentimetro besterik ez zuen neurtuko. Kanpotik oso ondo apainduta zegoen, ate handiak zituen eta inguruan lorategiak zituen. Haiek zuhaitzez beteak zeuden, gehienak fruta-arbolak ziren. Horiek ere ez ziren oso altuak, gaztelua bezain altuak izango ziren.

Erregeak hirurogei bat urte izango zituen eta Martin baino pixka bat altuagoa zen, berrogeita hamar zentimetro neurtuko zituen. Oso dotore janzen zuen, praka moreak eta jaka zuria zeramatzan soinean. Oinetan babutxa urdin distiratsu batzuk zeramatzan. Bere buruan koroa zeraman, harri-bitxiz apainduta.

Lehenengo gauza egin genuena aurkeztea izan zen, alegia, nik nire burua aurkeztu nuen eta berak berea, bere izena Antton zen. Berak esan zigunez, Martin ezin zen herrian geratu. Azkenean aldiari uholdeak izan zituztelako hark, Martinek, ur biltegien erdia hustu baitzituen. Horrek herriari arazo larriak sortu zizkion, adibidez, herritar askoren etxeak guztiz suntsiturik geratu ziren. Arazorik larriena ur biltegiatako bat husten ari zenean gertatu zen, erregearen alaba kaletik paseatzen ari zen eta ur korronte handiaren ondorioz ia-ia ito egin zen, baina ez zen ito handik pasatzen zen mutiko ausart batek lagundu ziolako. Ondorioz Martin herritik botatzea erabaki zuten.

Erregeak hitz egiteari utzi zionean, Martinek hauxe esan zion:

- Baina ez nuen apropos egin, nik hori gertatzea ez nuen nahi.

- Bai, badakit, baina ez zenituen biltegiak hustu behar; hustu ez bazenitu hori gertatzea ezinezkoa izango zen -erantzun zion Anttonek.

- Baina uholdeak egotea oso normala da -esan zion Martinek.

- Ez, euria egiten ez duenean ez dira uholdeak suertatzen -gogorarazi zion erregeak.

Erregea asko haserretu zen Martinekin, berari kontra egiteagatik. Momentu hartan erregearen alaba agertu zen, bere aitarentzako askaria zekarren. Bera oso neska polita zen eta Martinen adinekoa izango zen, hogeita bost bat urte izango zituen. Berrogeita bost bat zentimetro neurtuko zituen. Oso dotore janzen zuen. Soinean, soineko berde distiratsu bat zeraman; oinetan, berriz, babutxa gorri batzuk zeramatzan. Maialen zuen izena. Konturatu nintzen Martin neska horrekin maiteminduta zegoela. Segur aski, horregatik nahiko zuen bere herrira itzuli.

Maialen bere aitaren ondoan eseri zen eta ez zuela Martin ikusi nahi esan zion erregeari. Orduan, erregeak herritik joateko eskatu zion Martini. Bera gogo txarrez altxatu eta joan egin zen; ni bere atzetik joan nintzen.

Etxera iritsi ginenean Martinekin hitz egiten saiatu nintzen, baina ez nuen lortu. Bi egun geroago, eskailerak jaisten ari nintzela, Martinek kanika batzuk bota zituen eskaileretan behera eta



haien erruz lurrera erori nintzen. Lurretik altxatu nintzenean, errieta egin nion eta oso iratxo gaiztoa zela esan nion. Beranduxeago, kanika guztiak biltzeko agindu nion, baita ondo portatzeko ere.

Handik egun gutxitara, baratzean barazkiak falta zirela ikusi nuen eta Martini galdetu nion ea beraietaz zerbait zekien, baina ezetz esan zidan. Gau hartan, berriro ere, lapurtu zidaten eta iratxoa oso maltzurra zenez, gezurra esan zidala pentsatu nuen. Horrexegatik barazkiak non zeuden galdetu nion eta berak erantzun zidan:

- Nik ez dakit non dauden barazkiak, nik ez baititut hartu.

Orduan Martini laguntzeko eskatu nion, baina berak ezetz esan zidan. Nik etxean gelditzen ez uztearekin mehatxatu nion eta, orduan, berak lagunduko zidala esan zidan. Etxean sartu ginen, nola harrapatuko genukeen lapurra pentsatzeko, inork entzun gabe. Hiru orduz eztabaidan egon eta gero Martini ideia bat bururatu zitzaion. Hau izan zen ideia: ur hotzeko kubo batzuk zuhaitzetan ezkutatu eta soka batzuekin lotzea. Soka horiek landareen artean ezkutatu eta etxe aurrean zegoen besaulkiari lotu. Hau gertatuko zen: lapurrak sokaren puntu zehatz batean zapaltzen zuenean, ur hotzeko ontziak bere buru gainera eroriko ziren eta sustoaren ondorioz oihuka hasiko zen eta hor zegoela konturatuko ginen. Horrela, jakingo genuke nor zen lapurra.

Gau hartan, guk pentsatu genuen bezala gertatu zen dena. Goizeko hiruetan edo horrela oihu batzuk entzun nituen baratzean. Ohetik altxatu eta korrika jaitsi nintzen. Iratxoa egongelan aurkitu nuen. Azkar-azkar baratzerara joan ginen biak eta han herriko gazte batzuk aurkitu genituen blai-blai eginda. Hauxe galdetu nien:

- Zertan ari zarete hemen?

- Ezer ez! -erantzun zidan batek.

- Zuek al zarete nire baratzetik barazkiak hartzen dituzuenak? -galdetu nien.

- Bai -erantzun zidan batek.

- Eta zergatik egiten duzue hori? -galdetu nien, baina ez zidan inork erantzun.

Geroxeago etxean sartzeko esan nien. Bertan zerbait beroa prestatu nien eta lehertzeko, eskuoihalak eman nizkien. Haiek joan baino lehen, esan nien barazkiak nahi bazituzten eskatzeko, eta ez abisatu gabe hartzeko. Berriro ere, niri abisatu gabe barazkiak hartzen bazituzten, polizia-ri deituko niola esan nien mehatxu bezala.

Hau gertatu eta bi hilabete beranduago, beste iratxo bat agertu zen nire etxe aurrean. Horrek berrogeita bost bat zentimetro neurtuko zituen eta berrogei bat urte izango zituen. Galtza gorriak eta jaka urdina zeramatzan soinean. Erregearen mezularietako bat zela ohartu nintzen.

Egin zuen lehenengo gauza aurkeztea izan zen, bere izena Andoni zen. Gero ni nor nintzen galdetu zidan. Nik galderari erantzun nionean, nire bila zebilela esan zidan. Nik zergatik ari zen nire bila galdetu nion, eta berak erregeak bidalia zela erantzun zidan. Antton, hau da, erregea, gaxorik zegoelako.

Azkar-azkar gauzak hartu eta iratxoekin Gorbeia joan nintzen. Hara iritsi ginenean, erregea ikustera joan ginen. Erregearen medikuak erregeak zer zeukan esan zidanean, amonak erakutsi zidan errezeta bat gogoratu nuen. Medikua joan behar zuenez, Martini erregea nola zaindu behar zuen esan nion. Ni etxera bueltatu, eta errezeta egin nuen.

Hurrengo goizean Gorbeia abiatu nintzen. Hara iritsi nintzenean, erregeak nik egindakoa edan zuen eta egun gutxi barru, guztiz sendaturik zegoen. Martinek oso ondo zaindu zuen sendatu arte, horregatik galdetu zion erregeak:

- Zerbait berezia nahi al duzu?

- Bai, herrian geratu nahi nuke -erantzun zion honek.

- Herrian geratzen utziko dizut, baina nigatik egin duzunarengatik, zu nire alabarekin ezkontzea nahi nuke -esan zion erregeak, eta Martinek pozik baieztatu zuen.

Aste bat beranduago, ezkontza ospatu zen. Ni ezkontzako gonbidatuetako bat izan nintzen. Martin eta Maialen oso dotore jantzita zeuden. Martinek jaka zuria eta praka beltzak zeramatzan soinean. Oinetan berriz urre koloreko babutxa distiratsu batzuk. Maialenek soineko gorri bat zeraman soinean eta oinetan Martinek zeramatzan babutxen antzeko batzuk. Belarrietan, soinekoaren koloreko belarritako distiratsu eta deigarri batzuk zeramatzan. Irribarre polit bat agertzen zitzaien aurpegian.

Oso pozik zeudela ikusten zen haien aurpegietan, baita Anttonen aurpegian ere. Oso festa polita izan zen, guztiak alai zeuden eta asko dantzatu genuen. Martinek eskerrak eman zizkidan eman nion laguntzagatik eta erregeak eskerrak eman zizkidan gaixorik zegoenean sendatzeagatik. Geroxeago, Anttonek opari bat eman zidan herriaren partez, herriarentzat egindakoarengatik. Istorio hau kontatu dizuet, baina oparia zein izan zen ezin dizuet esan.

Zeuen buruari galdetuko diozue ea Martin berriro ikusi dudan ezkontza eta gero. Galdera horren erantzuna esango dizuet: Martin eta bere herria, hamabostean behin ikusten ditut.

# Bertso paperak modalitatea

Modalidad **“Bertsos escritos”**

## **DANTZAKO IRAKASLEA**

**Uxue Seminario Aguinaga**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 5. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 5° curso

---

**1)** Dantzako irakaslea eskolatik joan da ta oraindik ez dakigu ongi egiten dantza

**2)** Ainhoa du izena Oiaga abizena Sortzenen ikusiko dugu berriz elkar

**3)** Ainhoa irakaslea asko maite dugu gainera dantza egiten erakutsi digu

**4)** Pena asko ematen digu Ainhoa joateak horregatik banoa negarrez etxera

**5)** Agur gure Ainhoa ez joan betirako zuri ematen dizugu bertso hau gordetzeko

## **ESKOLA EGUNA**

**Amaia Izar Leatxe**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 5.maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 5° curso

---

**Doinua: Maritxu nora zoaz?**

**1)** Eskolara bagoaz txirindularekin irribarre ta pozik gure lagunekin

**2)** Han dago andereño bere liburuekin ta gu bitartean gure koadernokin

**3)** Eguerdiak aldera ateratzen gara bi ordu pasata berriro ikastera

**4)** Bakarrizan bi ordu falta dira jada txirrina jo ondoren parkera bagoaz

## **KOPLAK**

### **Garazi Azkoaga Iholdi**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 6º curso

---

**1)** Aurtengo urtean  
guk ederki pasa  
kurtsoa bukatzeko  
ez daukagu presa

**2)** Guk ez dugu pasako  
aspertzen denbora  
hainbeste jaiarekin  
gaude oso gustora

**3)** Barañaingo herrian  
parranda ta festa  
guk martxa jartzen dugu  
ukitzen tronpeta

**4)** Ez gara gu aspertzen  
festa ta parrandan  
ongi pasatzen dugu  
udaletxe plazan

## **NEREA ZORITXARRETA**

### **Nerea Otano San Martin**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 6º curso

---

**Doinua:** Ama begira zazu.

**Gaia:** Zorte txarrekoa naiz...

**1)** Gaur goizean altxatu  
egin naiz berandu  
arropa jantzi dut ta  
korrika gosaldtu

**2)** Amatxori galdetu  
zein egun ote den  
astearte hamahiru  
gaur apirilaren

**3)** Azterketa dago eta  
gaizki altxatu behar  
beno motxila hartuta  
goazen lasterka (a)zkar

**4)** Eskailerak jaitsita  
txiribueltak eman  
azkenik portalera  
iritxi naiz hegan

## IZENBURURIK GABE / SIN TÍTULO

**Isabel Gordo Baztan**

**I. SARIA:** Lehen Hezkuntza 6. maila

**I° PREMIO:** Educación Primaria 6° curso

---

**Doinua:** Triste bizi naiz eta.

**Gaia:** Azterketa egiten ari naiz eta irakasleak aurrekoari begiratzen harrapatu nau.

1) Azterketa eguna  
iritxi da herrira  
eta daukat burua  
jira eta bira  
aurrekoari hasi  
naizenean begira  
irakaslea bronka  
botatzen hasi da

2) Azterketa bukatzen  
izan naiz lehena  
horria kendu eta  
bihotzean pena  
irakasleak eman  
hamalau eskema  
ez dut inoiz egingo  
kopiatzearena

## ALAITZEN

**Xabier Macaya Erro**

**I. SARIA:** Bigarren hezkuntza I. DBH

**I° PREMIO:** Educación Secundaria I° ESO

---

**Doinua:** Maritxu nora zoaz?

1) Zortziak jo eta gero  
klasera bidean  
neska-mutil guztiak  
motxilak atzean

2) Klasean sartu eta  
hasi da zarata  
maisua etorri da  
zer den ikustera

3) Inglesa hasi gara  
ez ireki ahoa  
bestela jarriko du  
negatibo ona

4) Soinketa bagoaz  
pozik gainera  
binaka badminton  
jolastuko gara

5) Nire tripa hasten da  
korrika egiten  
hamaiketako ordua  
dela esaten

6) Gustoko zenbakiak  
hartuko ditugu  
ekuazioak asmatzen  
eta "ekis" gehitu

# Aurkibidea / Índice

## Ipuinak / Cuentos

| SARIA / PREMIO                                    | EGILEA / AUTOR                    | ORR. / PÁG. |
|---|-----------------------------------|-------------|
| <b>3. maila LH/3° E.P.</b>                        |                                   |             |
| 1. saria Printzesa eta kanguroa                   | Ainhoa Astrain Macicior           | 5           |
| 1. saria Indiarra eta musikoa                     | Nuria Ayala Diez                  | 5           |
| 2. saria Leopardo itsua                           | Ibai Zudaire Lasa                 | 6           |
| 2. saria Maitagarria eta aingerutxo               | Uxue Rodríguez Pérez              | 7           |
| <b>4. maila LH/4° E.P.</b>                        |                                   |             |
| 1. saria Magi eta maitagarria                     | Iraitz González Blanco            | 7           |
| 1. saria Erloju erotuak                           | Jon Aramendia Martínez            | 8           |
| 1. saria Katagorria eta bere urtea                | Iñaki Martínez Azpiroz            | 8           |
| 2. saria Mundua izugarria da                      | Idoia Garmendia Berango           | 9           |
| 2. saria Abentura zoragarria                      | Daniel Matxiñena Abad             | 10          |
| 2. saria Dani galduta dago galaxian               | Natalia Soto Moraleda             | 11          |
| <b>5. maila LH/5° E.P.</b>                        |                                   |             |
| 1. saria Ros eta Punken abenturak                 | Nerea Beloki Yerro                | 11          |
| 1. saria Lapur bat eskolan                        | Amaia García Remón                | 13          |
| 1. saria Eguzkia harrapatu nahi zuen umea         | Miren Jiménez Muñoz               | 14          |
| 2. saria Amaiaen ispilua                          | Garazi Retegi Goñi                | 14          |
| 2. saria Nola izan pirata?                        | Javier Jorajuria Calvo            | 16          |
| 2. saria Animalien mundua                         | Maite Urria Gorospe               | 17          |
| <b>6. maila LH/6° E.P.</b>                        |                                   |             |
| 1. saria Trikuharrien sekretua                    | Sarai Robles Vitas                | 18          |
| 1. saria Album magikoan sarturik                  | Ainara Leceta Marañoñ             | 19          |
| 2. saria Bi arrautzak                             | Mikel Lasarte Cía                 | 21          |
| 2. saria Bihotz formako hamibitxia                | Bidane Zabalza Alonso             | 23          |
| <b>I. DBH/1° E.S.O.</b>                           |                                   |             |
| 1. saria Usurbileko uraren istorioa               | Ane Lore Iriarte Zemborain        | 24          |
| 1. saria Mikelen txakur galdua                    | Maite Uriarte Belzunegi           | 25          |
| 2. saria Ametsen bila                             | Asier Gordo Baztan                | 27          |
| 2. saria Ankatxo                                  | Ainhoa Ibero Gorriti              | 28          |
| <b>2. DBH/2° E.S.O.</b>                           |                                   |             |
| 1. saria Zergatik ez?                             | Markel Videgain Barberena         | 29          |
| 1. saria Bizitza aldaketa                         | Aritz Lasarte Cía                 | 30          |
| 1. saria Triofiro                                 | Miren Josune González Etxenagusia | 33          |
| 2. saria Lorentzo kobea                           | Unai Mangado Pérez                | 37          |
| 2. saria Herio                                    | Aitor Ariceta López               | 38          |
| 2. saria Iratxo maltzurak, ez dira beti maltzurak | Janire Perales Ullibarri          | 39          |

## Bertso paperak / Bertsos escritos

| SARIA / PREMIO                         | EGILEA / AUTOR          | ORR. / PÁG. |
|--|-------------------------|-------------|
| <b>5. maila LH/5° E.P.</b>             |                         |             |
| 1. saria Dantzako irakaslea            | Uxue Seminario Aguinaga | 43          |
| 1. saria Eskola eguna                  | Amaia Izar Leatxe       | 43          |
| <b>6. maila LH/6° E.P.</b>             |                         |             |
| 1. saria Koplak                        | Garazi Azkoaga Iholdi   | 44          |
| 1. saria Nerea Zoritxarreta            | Nerea Otano San Martin  | 44          |
| 1. saria Izenbururik gabe / Sin título | Isabel Gordo Baztan     | 45          |
| <b>I. DBH/1° E.S.O.</b>                |                         |             |
| 1. saria Alaitzen                      | Xabier Macaya Erro      | 45          |





AYUNTAMIENTO DE BARAÑÁIN  
BARAÑAINGO UDALA



Udalaren euskara zerbitzua  
Servicio municipal de euskera